# Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

## 2012rako plangintza proposamena

Aurkibidea 1
Testuinguruaren azalpena 2
2007ko EGKren Batzarrean onartutako lan ildoak 3
Plangintzarako oinarri komunak eta zaharkako balioak 4
Hezkuntza
1.1 Hezkuntza ez formala 5
1.2 Hezkuntza formala 8
1.3 Harremanak 9
1.4 Egunerotasuna 12
Bizi baldintza materialak
2.1. Etxebizitza 13
2. 2 Enplegua 15
2. 3 Espazio publikoa eta parte hartzea 20
2. 4 Gazte nekazariak 26
2. 5 Oinarrizko errenta unibertsala 28
2.6 Elkarlana eta interpelazioa 29
Justizia eta Bedintasun baldintzak
3.1 Kulturartekotasuna 32
3.2 Genero 36
3.3 Beste harremanak 38
3.4 Bestelakoak. Egunerakoak 39
Komunikazioa
4.1 Gazte komunikatzaileen topaketa abiatzea 40
4.2 Gaztebol 42
4.3 Gazteriaren Kontseiluaren zerbitzu katalogoa 44
4.4 Komunikabideen gida 46
4.5 Berriz berri 48
4.6 Bideo baten ekoizpena 51
4.7 Gazte borraste irratsaioa 53
4.8 Gaztepress 56
4.9 Durangoko azoka 58
4.10 Web orrialdea eta sare sozialak 60
4.11 Ahotik at aldizkaria 10. alea 62
4.12 Komunikazio kanpainak 64
4.13 Elkarteentzat komunikazio aholkularitza 66
4.14 Bestelakoak 68
Lurraldetasuna
5.1 Gazteek-in 69
5.2 EGK eta barruko elkarteekiko lana 72
5.3 Administrazioekiko bitartekaritza eta elkarlana 74
5.4 Gazteekin zuzenean edo zeharka lan egiten duten sareekiko lana 77
5.5 EGK lurralderantz 79
Presidentzia
6.1 Batzorde Iraunkorra 81
6.2 Lan Talde Teknikoa 83
6.3 Batzorde Ekonomikoa 84
6.4 Ohiko Asanblada 86
6.5 Instituzioekiko elkarlana: Jaurlaritza 87
6.6 Instituzioekiko elkarlana: Aldundiak 89
6.7 Instituzioekiko elkarlana: Legebiltzarra 90
6.8 Erakunde garapena 91
6.9 Irudi publikoa 92
EGK-ko 2012rako aurrekontua
7.1 EGK-ko 2012rako aurrekontuaren inguruko azalpenak 93
7.2 EGK-ko 2012rako aurrekontua 95

# TESTUINGURUAREN AZALPENA

EGKren baitako azken plan estrategikoa 2011 urtera artekoa zen. Hala, iazko Batzar Orokorrean onartutako moduan EGKren baita berregituratze eta berrantolatze prozesu bat martxan dago, Indartzen deiturikoa, eta prozesu honetatik aterako diren ondorioak kontutan hartuta egingo da hurrengo plan estrategikoa. Hala, 2007-2011 plan estrategikoaren eta Indartzen prozesuaren ondorioen artean emango den denbora-tarte horretan, 2007-2011 plan estrategikoaren lan ildoak hartuko dira kontutan EGKren metodologia, filosofia eta helburuak finkatzeko. Beraz, plan estrategiko berria finkatu arte, aurreko lan ildoekin jarraituko dugu lanean, oraindik ere guztiz baliagarriak direla ikusten baita.

Jarraian azaltzen dira eskematikoki zeintzuk diren lan ildo hauek, 2007ko ekainaren 15eko EGKren Batzarrean onartutakoak.

**IKUSPEGI OROKORRA**

**-Komunikazioa-Gizarteratzea**

**-Nazioartekoa**

**HEZKUNTZA**
**Formala**
**Ez-Formala**
**(Astialdi hezitzailea)**

**BIZI BALDINTZA MATERIALAK**
**Osasuna**
**Enplegua**
**Etxebizitza**

**JUSTIZIA ETA BERDINTASUNERAKO BALDINTZAK**
**Genero berdintasun eta zuzentasuna**
**Kulturartekotasuna**
**Gatazken ebazpena eta biolentzia eza**
**Herrialde aberastuak/txirotuak**

**ZEHARKAKOAK**

**-Partehartzea (balore eta metodologia gisa)**
**-Ikuspegi Hezitzailea**
**-Genero Ikuspegia**
**-Euskararen erabilera eta sustapena**
**- Aniztasuna**
**-Jasangarritasuna**

| Plangintzarako Oinarri Komunak eta Zeharkako Balioak: | |
|---|---|
| **Proiektu guztiEKIN bermatzeko** | **Proiektu guztiETAN bermatzeko** |
| **OINARRI KOMUNAK** | **ZEHARKAKO BALIOAK** |
| • Elkartegintza sustatu eta sendotu<br>• Politika ezberdinetan EGKren ikuspegia azaldu<br>• Koordinazioa<br>• Gizarteratzea<br>• Nazioarteko Ikuspegia | • Partehartzea (balore eta metodologia gisa)<br>• Ikuspegi hezitzailea<br>• Genero Ikuspegia<br>• Euskararen erabilera eta sustapena<br>• Aniztasuna<br>• Jasangarritasuna |

# 1. HEZKUNTZA

## 1.1 HEZKUNTZA EZ FORMALA

### 1.1.1 Astialdi Foroaren koordinazioa

**deskribapena**

Astialdi Foroa EAEko elkarte eta eragile ezberdinen elkarlanerako gunea da. Lantalde honek, Euskadiko Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu, elkarren arteko koordinazio – bitartekaritza, ekimenen oinarrizko aholkularitza, elkarren arteko hausnarketa, formazioa eta sentsibilizazioa abiapuntutzat hartuta. Astialdiari lotutako elkartegintza indartu nahi da, baita balioetan heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatutako ekimenak bereziki sustatu ere.

**helburuak**

**Orokorrak**:

- Astialdi Foroko koordinazioa ebaluatzea eta hobetzea
- Astialdi Foroko lan taldea sendotzea

**Zehatzak:**

- Esperientziak trukatu
- Lan komuna egin

**ekintzak eta epeak**

**Ekintzak**

Bilerak. Hiru asteetan behin.

**Kronograma**

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |

**hartzaileak**

- Astialdi Foroko elkarteak

**jarraipena eta ebalueketarako irizpideak**

Iazko jardunaldien Foroaren lana ebaluatzeko honako irizpideak kontutan hartuko ditugu:

- Egin diren bilera kopurua
- Bilera guztietan Astialdi Foroko erakundeen %60a parte hartzea

## 1.1.2 Astialdi taldeek antolatzen dituzten udako aktibitateen eskuorria

### deskribapena

Eskuorri honetan lurraldeko astialdiko taldeen udako kanpalekuei eta udalekuei buruzko informazioa jasotzen da. Lurraldeko koordinatzailea eta Hezkuntza arloko kontseiluko teknikaria, biak koordinaturik, kanpaleku eta udalekuen inguruko datuak jasotzen ditu eskuorriak (antolatzen duen elkartearen izena, telefono zenbakia, kanpamentu edo udalekuaren kokalekua, datak....). Uda aurretik argitaratu eta zabaltzen da. Aurten sentsibilizazio kanpaina garatuko da.

### helburuak

- Modu bateratu eta globalean Astialdi Hezitzailearen esanahia plazaratzea.
- Taldeek egiten duten lana hedatzea.

### ekintzak eta epeak

**Ekintzak (hilero)**

Galdetegia eta gutunen bidalketa: datoak jasotzeko galdetegi bat diseinatuko da (ekintza mota, datak, adinak, lekua, hezkuntza, talde antolatzailea, harremanetarako datuak).
Diseinuaren prestaketa eta argitarapena.
Prentsaurrekoa: maiatzean eskuorria plazaratuko da horretarako EGK-ko egoitzan prentsaurrekoa egingo da.
Hedapena: astialdi taldeei, gazte informazio bulegoei eta eskolei bidaliko da eskuorria

**Kronograma**




### hartzaileak

- Astialdi Foroko elkarteak
- Gazte Informazio Bulegoak
- Gurasoak eta familiak
- Administrazioak

### jarraipena eta ebalueketarako irizpideak

- Hedabideen erantzuna
- Bidalitako ale kopurua

## 1.1.3 Astialdi Foroko webgunea

### deskribapena

Astialdi Foroko webgunea hamabost egunean behin eguneratzen da. Astialdiari buruzko albisteak, taldeei buruzko informazioa eta Astialdi Foroari buruzko deialdiak eta berriak argitaratzen dira, haien artean udako ekintzen eskuorria.

### helburuak

- Modu bateratu eta globalean Astialdi Hezitzailearen esanahia plazaratzea

### ekintzak eta epeak

**Ekintzak**

Webgunea era jarraian eguneratuko da.

**Kronograma**

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |

### hartzaileak

- Astialdi Foroko elkarteak
- Astialdi eragileak
- Gazteria eragileak

### jarraipena eta ebalueketarako irizpideak

- Argitaratutako eduki kopurua
- Webguneari egindako bisita kopurua

# 1.2 HEZKUNTZA FORMALA

## 1.2.1 Unibertsitateko elkartegintza

### deskribapena

EHUko elkarteak gazte elkartegintzaren zati garrantzitsu bat dira, beraien funtzionamendu propio, behar eta desio zehatzekin. Hezkuntza arlotik harremana sortzea eta garatzea lortu nahi dugu eta, horretarako, EGK-k dituen lanerako espazioak eskeini eta elkar ezagutzan sakondu eta elkarlanerako aukerak indartu nahi ditugu, kontseiluak beste gazte elkarteekiko dituen betebeharrak eta funtzioak beraiekin ere betez.

### helburuak

- Ikasle elkartegintza indartu eta parte hartzea bultzatu.
- Ikasle elkarteentzako laguntza eta onarpena administrazioei eskatzea

### ekintzak eta epeak

**Ekintzak**

Bilerak

**Kronograma**

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |

### hartzaileak

- EHUko Ikasle elkarteak

### jarraipena eta ebalueketarako irizpideak

A. Egindako bilera kopurua
B. Zenbat eragileekin bildu garen
C. Jorratutako amankomunezko gaiak eta ekintzak

# 1.3 HARREMANAK

## 1.3.1 Intituzioekin elkarlana

### deskribapena

Astialdi hezitzaileak gaur egun betetzen duen gizarte-funtzioa dela-eta zaintzeko dagoen interesarengatik eta gizarteak espazio ez formalean hezkuntza-lanak egiten jarraitzeko daukan beharrarengatik, derrigorrezkoa da gizarte eragileen eta instituzio publikoen (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta udalak) arteko lankidetzan aritzea. Hezkuntza ez formalaren eskaintza garatzeko ezinbesteko baldintza da bi alderdi horiek elkar ulertzea eta lankidetzan aritzea, eta bakoitzak astialdia esparruan bere zereginak izan eta ekarpenak egitea.

Aurten ildo honetan GAZTEEK-IN prozesuan parte hartuko da. Prozesu honen funtsa gazteriaren parte hartzea estrukturatu eta bermatzea da, gazteriari zeharka edo zuzenki eragiten dien politiken garapenean, implementazioan zein ebaluazioan.

### helburuak

- Astialdi hezitzailea indartu eta sustatzeaz arduratzen diren erakunde publikoekin harremanak sendotzea.

- GAZTEEK-IN prozesu parte hartzailean hezkuntza formalaren eta ez formalaren arloko lan ildoak txertatu.

### ekintzak eta epeak

**Ekintzak**

Modu bateratu eta globalean Astialdi Hezitzailearen esanahia plazaratzeko eta duintasuna emateko Instituzioekin batera lankidetzan aritu behar gara, Astialdi Foroaren esperientzia oinarri hartuta elkarlana bultzatuaz.
GAZTEEK-IN prozesuan parte hartu.

**Kronograma**

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

### hartzaileak

- Erakunde publikoak
- Astialdi eragileak

- Astialdi Foroko eragileak
- Gazteak

## jarraipena eta ebalueketarako irizpideak

D. Egindako bilera kopurua
E. Zenbat instituzioekin bildu garen
F. Jorratutako amankomunezko gaiak eta ekintzak

# 1.3.2 Beste eragileekin harremana

## deskribapena

Lankidetza zabalaren alde gaude. Hau da, astialdian ahalik eta eragile gehienak lankidetzan aritzea nahi dugu: astialdi taldeak eta sareak, astialdi zerbitzuak eskaintzen dituzten eta astialdi hezitzaile filosofia daukaten enpresak, eskolaz kanpoko jarduera-egitarauak dauzkaten ikastetxeak, gurasoak (elkarteen bidez), batzordeak, etab. Beharrezkoa da indarrak batuz joatea eta lanerako irizpide eta helburu komunak izatea.

## helburuak

**Orokorrak**:

- Elkartegintza eta sare lana bultzatu eta indartu
- Astialdian esku-hartzen duten eragileetatik kalitatezko eta egungo beharrizanetara egokitutako eskaintza sustatzea.

**Zehatzak:**

- Hezkuntza formaleko eta ez formaleko eragileekin harremanak mantendu.
- Sortzen diren ekimen berrietan parte-hartu/ezagutu.
- EGKren erreferentzia sarea zabaldu/indartu.
- Boluntariotza agentziekin hausnarketa komunak burutu.
- Astialdi hezitzailearen inguruko lan sareak indartu eta lagundu.

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak

Beste eragileekin harremana

### Kronograma (ikasleen oporretan izan ezik)

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- Astialdi Foroko eragileak
- Beste eragileak

## jarraipena eta ebalueketarako irizpideak

G. Egindako bilera kopurua
H. Zenbat eragileekin bildu garen

# 1.4.1 EGUNEROKOTASUNA

## 1.4.1 Egunerokotasunean

### deskribapena

Arlo bakoitzaren lan zehatzetatik aparte teknikariok egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar dugu egunero: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; material, dokumentazio, eskutitzak, emailak... jaso artxibatu eta deribatu; oinarrizko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu.

### helburuak

- Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eramatea.

### ekintzak eta epeak

**Ekintzak**

Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eraman

**Kronograma**

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |

### hartzaileak

- Lantalde teknikoa
- EGKko elkarteak
- EAEko elkarte sareak
- EAEko administrazioak

### jarraipena eta ebalueketarako irizpideak

I. Jasotako proposamenak eta hobekuntzak.

# 2. BIZI BALDINTZA MATERIALAK

## 2.1 ETXEBIZITZA

### 2.1.1 Etxebiz-Hitza plataforma

**deskribapena**



EtxebizHitza plataforma gaur egun etxebizitza eskubidearen defentsaren inguruan eragile ezberdinak batzen dituen gune bakarretarikoa da. Horrela izanik, premiazkoa egiten da berau mantentzea eta aurten ere, aurreko urteetan abian jarritako espazio honi jarraipena emango zaio, ekimen ezberdinak sustatuz.

Bere momentuan Foroak bizi izandako norabide aldaketaren ondorioz (Administrazioarekiko harreman ofiziala eten egin zen gobernu aldaketa eman ostean), elkargunea birdefinitu egin zen, helburuak eta estrategiak egoera berriari moldatuz. Guzti honetan EGK-ren papera funtsezkoa izan zen, eta oraingoan eragile bat gehiago bezala parte hartuz gain, zenbait koordinazio funtzio berriro ere gazte kontseiluak hartzea aurreikusten da, bataz beste hilabetean behin ematen diren bilerak Bilboko egoitzan jasoz, bilerak dinamizatuz, aktak jasoz, gai ordena zabalduz, deialdiak irekiz eta gauza teknikoetaz arduratuz.

**helburuak**

**Helburu orokorra:**

Etxebizitza eskubide subjetiboa defendatu, herri-hiritar denontzako, eta bereziki eskubide hau nabarmenki urratua ikusten dugun gazteontzako.

**Helburu zehatzak:**

- Etxebizitzaren eskubide subjetiboaren aldeko forotik berreskuratutako indarrekin, plataforma bezala jarraipena emateko idazkaritza ardura hartu.
- Eragile sozial eta sindikalekin batera, etxebizitzaren inguruko problematika landu eta kalera begirako ekimenak garatu. Plataforman eragileak gehitu.
- Administrazio/instituzio ezberdinen arduraren inguruan interpelazioa bideratu.
- Aurreko urtean adostutako ‘Etxebizitza lege berri batentzako oinarrizko neurrien DEKALOGOA’ gizarteratu eta Legebiltzarrean ordezkaritza daukaten taldei aurkeztu.
- Plataformatik sortzen diren ekimenei jarraipena eman.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**Ekintzak**

- Dekalogoaren aurkezpena eta gizarteratzea.
- Legebiltzarrean aurkezpena
- Plataformatik sortzen diren ekimenei jarraipena eman.
- Etxebizitza legearen joan-etorriak aztertu.

**Kronograma**




## hartzaileak

- Plataformako kide aktiboak: ELA, LAB, STEE-EILAS, ESK, Kepasakonlakasa eta EGK.
- Plataformako beste kideak: Berri Otxoak, EDE Fundazioa, Elkartzen, Ezker Gogoa, Caritas Bizkaia eta Gazteleku daude. Honez gain, dekalogoari atxikimendua eman dioten elkarte asko.
- Bestelako elkarteak: sindikatuak, etxebizitzaren inguruan lanean diharduten taldeak, gizarte bazterketaren kontrako elkarteak, gazte elkarteak, Unibertsitatea, etab.
- Erakunde politikoak, Jaurlaritzako Etxebizitza eta Garraio Sailburuordetza eta Legebiltzarra.
- Jendartea orokorrean eta gazteak bereziki.

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- EGK-ren proaktibitatea, hartutako ardurak.
- Plataformaren funtzionamendua, bilera kantitatea eta kalitatea. Beste kideen proaktibitatea.
- Plataformaren parte hartzaileen kopurua.
- Lortutako atxikimenduak.
- Proposamen eta diskurtsoen eragina (jendarte eta komunikabide an).
- Administrazioarekin izandako bilerak.

# 2.2 ENPLEGUA




## 2.2.1 Enplegu Lan Taldea

### deskribapena

Luze da EGKtik gazteriaren prekarietatea salatzen dela, ez bakarrik azken urteotako egoera ekonomikoren ondorioz, baizik eta are lehenagotik ere pairatzen ditugun baldintzengatik ere. Gaur egungo egoerak bereziki gogor jo gaitu gazteoi eta bideratzen ari diren erreformek ez dute gure prekarietatea denboran eta sakontasunean indartuko baino. Sindikatuek eta beste eragile batzuek emandako erantzunak ez dira gutxi izan, baina beharrezkoa da geuk gazteok, gazte perspektiba batetik, guzti hau hausnartu eta erantzun bat emateko lan talde bat sortzea.

Azken lau urteetan EGKk Gazteria eta Enplegua eztabaida eta formazio jardunaldiak etorri da antolatzen, EGK osatzen duten elkarte ezberdinen elkarlanaren ondorio eta gazteriaren inguruko politiken inguruko hausnarketa eta formazioa ahalbidetuz. Hala ere, egitasmo hau bultzatzen zuen talde motorea hoztu izan da eta bultzada emateko esfortzua egiteko momentua badela dirudi.

### helburuak

**Helburu orokorra:**

Gazteriaren perspektiba batetik enplegu eta lan munduan bideratzen ari diren aldaketa eta eskubide murrizketak hausnartu, eskubide eta prekarizazioaren aurrean gure egoera aztertu eta gazteok eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea defendatu.

**Helburu zehatzak:**

- EGK barruko enplegu lan taldea bultzatu eta gazte elkarte-eragile gehiagori zabaldu.
- Gazteria eta enpleguaren inguruko politiken inguruan hausnarketa eta eztabaida gune bat sortu, gazteon prekarizazioan erortzen ez diren alternatibak sortzeko bideak irekiz.
- Eragile ezberdinen arteko harremana sendotu.
- EGKren baitan material propioa garatu.

- Plangintzako 1.2.2 eta 1.2.3 proiektuak lan taldearen barruan bideratzen saiatu.
- Administrazio eta beste erakundeekin.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**Ekintzak**

Aurreko urteetako lan taldea berreskuratu [CCOO, UGT, EHNE, Gazte komunistak, JOC...]
Elkarte eta eragile berriekin lan taldea bultzatu [sindikatu, ikasle sindikatu, gazte elkarteak...]
Plataformatik sortzen diren ekimenei jarraipena eman.
Apirilak 28-ko ekimena bultzatu
Abenduaren 2-ko ekimena bultzatu
Lan istripuen protokoloaren oinarriak ezarri.

**Kronograma**




## hartzaileak

- EGK barruko enplegu lan taldea (CCOO, UGT, EHNE, Gazte Komunistak eta JOC) eta EGK barneko beste elkarteak.
- Sindikatuak eta Enplegu arloko jendarte eta gazte taldeak.
- Administrazio/instituzio ezberdinen arduraren inguruan interpelazioa bideratu.
- Jendartea oro har eta gazteak bereziki.

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Lan taldearen bideratzea eta bertan elkarteen parte hartzea.
- Proposatutako ekintzen bideraketa.
- Proaktibitatea eta bideratutako eztabaida eta hausnarketaren sakontasuna.
-

## 2.2.2 Lan Istripuen Protokoloa [eguneratzea]

## deskribapena

Lan istripu baten ondorioz gazte bat hiltzen den bakoitzean, heriotza bera eta gazteon lan-heriotzen errudun den prekarizazioa salatzeko adierazpen publikoa egitean datza protokolo hau. Batzorde iraunkor eta komunikazio teknikariarekin batera garatzen etorri da proiektua azken urteotan, baina gaur egungo egoerak testuaren zenbait aldaketa eta protokoloaren eguneratzea eskatzen du, ahal izatekotan lan talde orokor baten barruan garatuta (sortu nahi den enplegu lan taldea).

Horrela ba, protokoloa eguneratzen den bitartean orain arteko moduan, EGK-k dituen hedabide propioen bidez eta bestelako hedabideen bidez, EAEn gazte bat lan istripu baten ondorioz hilda suertatzen den bakoitzean salaketa publikoa egingo da, prentsa ohar baten bitartez.

Protokoloaren onarpena batzarretik pasa beharko da.

## helburuak

**Helburu orokorra:**

Gazte langileen lan istripuen ondorioko heriotzen errudun diren prekarizazio eta beste lan baldintzak salatu.

**Helburu zehatzak:**

- EGK-k dituen hedabide propioen bidez EAEn gazte bat lan istripu baten kausa hilda suertatzen den bakoitzean salaketa publikoa egin.
- Protokoloa eguneratu, aberastu eta idatziz jaso.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**Ekintzak**

Lan istripuen ondorioko gazte heriotzen salaketa
Protokoloaren eguneratzea bideratu.
Protokoloa idatziz jaso.

**Kronograma**

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- EGK barneko taldeak.
- Gizartea orokorrean, eta gazteak bereziki.

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Ekintzaren jarraipena.
- Inpaktu komunikatiboa.
- Berritutako protokoloaren diskurtsoaren kalitatea eta aberaztasuna.

## 2.2.3 Prekarietatearen salaketa publikoak

### deskribapena

Urtero bezala, gazte prekarietatearen inguruko posizionamendu publikoa egiteko asmoa dago aurten ere, bi nazioarteko egunen testuinguruan.

Lan Osasunaren Nazioarteko eguna [apirilak 28]: orain arte egin izan dena, gazteon lan baldintzak salatu eta berauek osasunean duten eragina azpimarratu, minimoen taula bat argitaratuz. Komunikazio teknikariarekin batera egingo da, EGKren hedabideen bitartez.

Esklabotzaren Aurkako Nazioarteko eguna [abednuak 2]: gure gizartean darraiten esklabotza lan baldintzak moduak eta honen bidean doazen prekarizazio moduak salatzeko erabiliko da. Berdintasun teknikari eta komunikazio teknikariekin batera, EGKren hedabideen bitartez.

Enplegu lan taldearekin ere bideratzen saiatuko da, eta ostean, EGKko elkarteek eta kanpo eragileek nahi izanez gero, ekimen publiko bat egin daiteke.

### helburuak

**Helburu orokorra:**

Gazteon lan baldintzen eta hauen ondorioen salaketa publikoa egin, enplegu sistemaren arduradun direnen ardura interpelatuz.

**Helburu zehatzak:**

- EGK-ren diskurtsoa - posizionamendua azaldu lan istripu eta prekarizazioaren inguruan.
- Instituzioen ardura interpelatu.
- Gainontzeko eragileekin dekalogoaren minimoak jendarteratu eta eragile gehiago txertatu.

### ekintzak eta epeak (kronograma)

**Ekintzak**

Dokumentuaren erredakzioa eta garapena.
Dokumentua elkarteekin landu eta babesa bilatu.
EGK-ren hedabide propioen bitarrez ezagutarazi eta komunikabideetara zabaldu
Ekimen publikorik egin?

**Kronograma**

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- EGK barruko elkarteak eta berezi bizi-baldintzen inguruan lanean dihardutenak.
- Sindikatuak, gizarte eragileak eta gazte eragileak.
- Gizartea oro har eta gazteok bereziki.

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Dokumentuak jasotako proposamenen egokitasuna.
- Dokumentua sinatutako elkarte kopurua.
- Medioetan izandako oihartzuna.

# 2.3 ESPAZIO PUBLIKOA ETA PARTE HARTZEA



## 2.3.1 Hirigintza Barneratzailea

### deskribapena

Proiektu honen xedea aurreko urteetan hirigintza eta lurralde antolamenduaren inguru landutakoan sakontzea da, berdintasunaren ikuspuntu barneratzaile batetik begiratuta gure hiri eta herrien antolamendua hausnartuz, gazteon parte hartzearen indar handiarekin.

Hiri eta herriak gure gizartearen euskarriak diren heinean, haien planifikazio, eraikuntza, birgaikuntza eta erabilerak gure gizartearen antolamendu eta jokaeraren ondorioz arautzen dira, baina badute ere antolamendu eta jokaera hauen gain eragin garrantzitsurik, bai berauek aldatzeko, bai aldiz mantendu egiteko ere.

Historikoki, gure gizartearen arauak gizon txuri nagusien behar eta nahietan oinarritu dira, gazte, emakume zein beste jatorri eta kulturetako pertsonak kanpoan utziz. Ondorioz, hiriak eta hiriak helburu berberekin antolatu izan dira, gizartearen kopuru handi baten behar eta nahiak asetu gabe, haien, geure, izana ezkutatuz, zapalduz, gutxietsiz...

Hala ere, hirigintza teknika neutro bat denaren irudia izaten jarraitzen dugu, araudi zorrotzen eta metro karratuen atzean dauden erabaki baztertzaileak ikusi ezin. Honegatik, praktika baztertzaileak identifikatu,antzeman eta berauen eraginaz jabetzea berebizikoa gertatzen da gure hirigintza barneratzaile bihurtu eta berarekin batera gizarte barneratzaileago baten bidea eraikitzeko.

Ildo honetan, garrantzi handia hartzen du praktika baztertzaileak identifikatu eta birmoldatzeko proposamenak egiterakoan 'behar praktiko', 'interes estrategiko' eta 'eraldatze potentzialaren' arteko ezberdinketa argia egiteak [M. Molineux eta K. Young ] , izan ere, honen inguruan landu izan diren gaiak ikusita, behar praktikoen inguruko gehiegizko lanketa antzematen baita, interes estrategikoen begirada eta hausnarketa hirigintzan txertatzea beharrezkoa eginez.

Honez gain, eta gizarteak azken hamarkadetan izandako aldaketak medio, hirigintzan genero perspektiba jasotzeaz gain, adin perspektiba ere barneratzearen beharra ikusten da, botere erlazio ez-orekatuak adinaren arabera modu ezberdinean ematen direla eta gazteok hirian behar eta nahi bereziak dauzkagula antzemanda.

Proiektu honetarako atal ezberdinetan beste teknikariekin elkarlanean egingo da, berez, berdintasun eta komunikazio teknikariekin.

## helburuak

**Helburu orokorra:**

Gure hiri eta herrien antolamenduan, hirigintzak, zein bere eginkizunetan eragina duten beste legeri, araudi, ohitura eta teknikek gure gizartearen ezberdintasunak mantentzen duten paper garrantzitsua azpimarratu, gai honen inguruko eztabaida plazaratu eta hirigintza barneratzaile eta parte hartzaile baten oinarriak hausnartu.

**Helburu zehatzak:**

- Ikuspuntu barneratzaile batetik, gaur egungo hirigintzaren azterketa bat egin, arreta bereziz adin eta genero arrazoiengatiko bazterketak aztertuz.
- Hirigintza barneratzaile baerako bidean eman beharreko aldaketak behar praktiko, interes estrategiko eta eraldatze potentzialaren artean bereizi, gizarte barneratzaile bat hezitzen duen hirigintza sustatzeko
- Hirigintzaren eraldaketan eta moldaketan lan egiten duten elkarte eta ekimenen arteko, gazteen parte hartzea daukatenena bereziki, elkarlan sustatu eta formazio eta eztabaidarako topaketa bat antolatu.
- Hirigintza eta lurralde antolamenduan eskumena daukaten administrazio eta deparamentuetan hirigintza barneratzailearen ikuspuntua txertatu, behintzat saiatu.
- Gaiaren inguruko txosten baten publikazioa: AHOTIK AT!

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**EKINTZAK**

Marko teorikoaren zirriborroa aurreratu
Marko teorikoa kontrastatu eta zuzendu
Marko teorikoa finkatu eta publikazioa egin [komunikazio teknikariarekin]
Eragile, administrazio eta ekimenekin elkarlana
Formazio/eztabaida topaketa prestatu
Formazio/eztabaida topaketa jaso
Egindako hausnarketaren gizarteratzea
Goitibera aldizkarirako erreportaia idatzi [berdintasun eta komunikazio teknikariekin]

**KRONOGRAMA**



## hartzaileak

- Gure hiri, herriak eta berauen espazio publikoak biziberritzen dituzten elkarte eta kolektiboak.
- Hiri eta herrien plangintzan eskumena daukaten administrazioak.
- Gizartea orokorrean, eta gazteak bereziki.

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Hausnarketaren sakontasuna
- Elkarte eta kolektiboekin harremanak
- Sortutako lan taldearen proaktibitatea eta aurrera eramandako ekintzak eta topaketen kalitatea
- Txostenaren kalitatea

## 2.3.2 DOT lantaldea




## deskribapena

Orain Lurralde Antolamendu Artezpideak berrikuzten ari direla, berriro ere gizartearen parte hartzerik egon ez dela eta onartu beharreko dokumentuak 1997ko oinarri berak mantentzen dituztela, paradigma ekonomiko desarrollista berberan mantenduz, Desazkundetik bultzatu eta koordinatutako DOT lantaldea bizi handia hartu du 2011ko azken hilabeteetan. Horrela ba, lan talde honen barruan zenbait dokumentu landu dira, besteak beste, Lurralde Antolamenduaren informazio triptiko bat, Euskal Hiria. NET dokumentuaren hausnarketa edo Lurralde Antolamendu Artezpide alternatiboak.

EGKtik parte hartu izan da, 2010.urtean landu ziren Lurralde Antolamendu Artezpide Alternatiboen lanarekin jarraituz, Planoetatik kalera jardunaldien harira, eta gehien bat, artezpide hauek gure lurraldearentzako suposatuko dutena kontutan hartuz. Horrela ba, lan talde honetan modu aktiboan lan egiten jarraituko da, daukan bultzada aprobetxatuz.

## helburuak

**Helburu orokorra:**

Desazkundean, gertutasuneko produkzio eta kontsumoan, elikadura subiranotasunean, energia nahikotasunean, garraioaren beharraren murrizketan, kulturaren deszentralizazioan, naturaren babesean... oinarritutako lurralde antolamendu eredu bat bermatu eta gizarteratu, non bertoko biztanleon parte hartzea berebizikoa den.

**Helburu zehatzak:**

- Lurralde Antolamendu Artezpideen onarpena baino lehen berauen inguruko prozesu parte hartzaile bat bideratzea eskatu.
- Lurralde Antolamendu Artezpideen ikuspuntu ez desarrollista bat gizarteratu.
- Lan taldean modu aktibo batean parte hartu.

## ekintzak eta epeak (kronograma)

**EKINTZAK**

LAAen inguruan administrazioa interpelatu gure posizionamendua aurkeztuz
LAAen hasierako onarpenaren osteko ‘kontsulta epean’ parte hartu
Lan taldearen ekimenekin aurrera egin.

**KRONOGRAMA**

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- EGK barneko taldeak.
- Gazte talde eta eragileak.
- Gai hauetan eskumena duten teknikari eta politikariak
- Gizartea oro har eta gazteria bereziki.

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Gure proaktibitatea, hartutako ardurak.
- Sarearen funtzionamendua, bilera kantitatea eta kalitatea.
- Inplikatutako taldeen kopuru eta aniztasuna.
- Gizarte taldeen artean eta erakundeengan lortutako inpaktua.
- Gizartearengan lortutako inpaktua.

# 2.3.3 Gaztetxeen uztarazteen protokoloa

## deskribapena

Hiri eta herrietako espazio publiko eta erabilera publikoko zerbitzu ezberdinek ez diete beti gazteon bizimodu, nahi eta beharrei erantzun egoki bat ematen, ez espazioengatik ezta antolamendu moduagatik ere, eta honen aurrean, hamarkadak dira gazte mugimenduek autogestioan, parte-hartzean, erabaki eta funtzionamendu autonomian oinarriturik eta diru-laguntzen eta epeen menpekotasunik at antolatzen direla.

Mugimendu hauek ekintza eta proiektu ezberdinak aurrera eramateko beharrezkoa duten espazioa lortzeko hiri eta herrietako eraikin hilak berpiztuz lortu dituzte [berez, bertan behera utziak izanagatik haien funtzio soziala betetzeari utzi diotenak], gure hiri, herri eta auzoei kolore berriak emanez.

Hala ere, hildako eraikinak okupatu eta eredu berriekin berpiztea baino, legeriak jabetza pribatua ezeren gainetik defendatzen du, eta tamalez, gaztetxeen uztarazteak aurrera jarraitzen dute.

Horrela ba, urteak da 22.batzarrean elkarteek adostutakoa jarraituz EGKk Gaztetxeen uztarazte bate aurrean prentsa ohar baten bidez uztaraztearen salaketa egiten duela, gaztetxeek gure gizartea justuagoa, irekiagoa eta anitzagoa eraikitzeko daukaten paperaren aurrean beraiekiko elkartasuna agertuz.

Aurten ere protokolo honekin jarraitu nahi da, baina 22.batzarreko testua eguneratu beharra ikusten da (aurtengoa 31.batzarra izango da). Protokoloa berritu, zabaldu eta idatziz jasoko da.

## helburuak

**Helburu orokorra:**

Hiri, herri eta auzoetako eraikin hutsak biziberritzen dituzten gazteon autogestioan oinarritutako proiektuek gizartea eraikitzeko duten garrantzia azpimarratu eta berauetan parte hartzeari babesa eman.

**Helburu zehatzak:**

- Gaztetxe bat uztarazten den bakoitzean hedabideetan berau salatu eta EGKren posizionamendua agertu.
- Protokoloa eguneratu, aberastu eta idatziz jaso.
- Proiektu hauei babesa aurkeztu.

## Ekintzak eta epeak (kronograma)

**Ekintzak**

Gaztetxeen uztarazteen salaketa eta haiekiko babesa aurkeztea.
Protokoloaren eguneratzea bideratu.
Protokoloa idatziz jaso.

**Kronograma**




## hartzaileak

- EGK barruko taldeak (batez ere lan eremuan aritzen direnak).
- Gazte talde eta eragileak.
- Erakundeak eta administrazioa.

- Gizartea oro har eta gazteria bereziki.

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Ekintzaren jarraipena.
- Inpaktu komunikatiboa.
- Berritutako protokoloaren diskurtsoaren kalitatea eta aberaztasuna.

## 2.4 GAZTE NEKAZARIAK




### deskribapena

2009. urtean erredaktatutako eta publikatutako Hizpideak IV argitalpena, gazte baserritarrek bizi duten testuingurua eta bizi baldintzen diagnosia jendarteratu eta berau hobetzeko edo gainditzeko dauden aukerak ezagutzera eman zituen. Dokumentuan, nekazaritza eta landa eremua osatzen duten faktoreei so eginda, sektore honetako langile gazteen egoera aztertu zen, argitalpenaren difusioa 2010eko hasieran egin zelarik eta 2011an 'Tailerretik Landara' jardunaldietan landa munduan etorkizun bila dabiltzan gazteen arazo eta abaguneak aztertu ziren.

Aurten diru iturrien urritzea ikusirik, gai interesgarri honetan formatu bereko proiekturik ezingo da egin. Hala ere, gai honen inguruko informazioaren eskasia ikusirik, eta daukan garrantziaz ohartuta, era batera edo bestera jorratzea aurrikusten da. Nekazaritza subiranotasunaren inguruko kontzeptuan sakondu eta bertan gazteriaren parte hartzea aztertzeko asmoz hain zuzen ere.

### helburuak

**Helburu orokorra:**

Nekazaritzan dabiltzan edo landa munduan etorkizun bila dabiltzan gazteen egoera eta haien nekazaritza subiranotasunarekiko papera aztertu, orain arte egindakoan sakondu eta gazte nekazariekin bat formazio eta eztabaida sustatu.

**Helburu zehatzak:**

- Gazte nekazarien elkarteen elkarlana sustatu.
- Gazte nekazarien egoera eta garrantzia gizarteratu.
- Bestelako produkzio eta kontsumo ereduen zabaltzea.

### Ekintzak eta epeak (kronograma)

**Ekintzak**

Gazte nekazari elkarte eta nekazaritzaren inguruko elkarteekin harremana
Proiektuaren definizioa.
Proiektua aurrera eramatea.
Ondorioak atera eta jarraipena zehaztu

**Kronograma**

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- EGK barneko taldeak.
- Gazte talde eta eragileak.
- Gizartea oro har eta gazteria bereziki.

## jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- EGK-ren diskurtso eta inplikazioa.
- Barneratutako taldeen kopuru eta aniztasuna.
- Gizarte taldeen artean eta erakundeengan lortutako inpaktua.
- Gizartearengan lortutako inpaktua.

## 2.5 OINARRIZKO ERRENTA UNIBERTSALA

### deskribapena

2008an Oinarrizko Errentaren Sarearekin bat eta gizarte mailako eragile ezberdinekin elkarlanean hasitako ibilibidearen ondorioz Oinarrizko Errentaren Simposium bat antolatu zen 2009an eta ondorioz EGKn txosten bat argitaratu zen. Ordutik aurrera puntualki egin izan dira bilerak baina ez da lortu sarea egonkortzea bai egondako erreleboak direla eta, bai sareko eragileen gainkarga dela eta.

Oinarrizko Errenta EGKren diskurtsoan barne sartu bada ere, eta beste gaietan txertatu izan bada ere, ezin izan da gaia bereziki landu, eta aurten berreskuratzeko bidea bilatzea ahalbidetu nahi da.

Zehazteke dagoen arren, eremu ezberdinetako eragileekin batera, oinarrizko errentaren ideia zabaldu eta gaur egun existitzen diren prestazioen azterketa egiteko asmoa dago.

### helburuak

**Helburu orokorra:**

Hiritartasun Oinarrizko Errentaren inguruko eztabaida bultzatu eta gazte eta gizartearentzako orokorrean ekar ditzakeen onurak aztertu eta gizarteratu.

**Helburu zehatzak:**

- Lan prozesuan zehar gizarte eragile gehiagorekin kontaktatu.
- Gaiaren inguruan eztabaida gune eta formazioa burutu.

### ekintzak eta epeak (kronograma)

Ekintza honek ez dauka epe zehatzik,

### hartzaileak

- Sarea bera: Ezker gogoa, EHNE, ESK, Gazte berdeak, Argilan, Txiroekin Bat Eginez, EHU.
- EGK barruko taldeak.
- Gazte eragileak.
- Erakundeak eta administrazioa.
- Gizartea oro har eta gazteria bereziki.

### jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Eragileekin harremana eta burututako ekintza eta hausnarketak.
- Gizarte taldeen artean eta erakundeengan lortutako inpaktua.
- Gizartearengan lortutako inpaktua.

# 2.6 ELKARLANA ETA INTERPELAZIOA

## 2.6.1 Gizarte eragile eta ekimenekin

### deskribapena

Jendarte eragileekiko elkarlana da EGK-k burutzen duen beste lan garrantzitsuenetariko bat. Arloarekin zerikusia duten gaiekiko (etxebizitza, enplegua, espazio publikoa, oinarrizko errenta,...) plataforma eta kolektiboen arteko dinamiketan parte hartu eta EGK-ren diskurtsoa azaleratu, ideiak eta ekimenak elkartrukatzea hain zuzen ere.

### helburuak

- Bileretan parte hartu eta EGK-ren diskurtsoa eta gazte ikuspegia bermatu.
- Beste eragilekin harremana ahalbidetu eta egonkortu.

### ekintzak eta epeak (kronograma)

Ekintza hau urtean osoan zehar gauzatzen da.

### hartzaileak

- EGK kanpoko gazte eragileak.
- Gai sozialak jorratzen dituzten jendarte eragileak.
- Jendartea oro har eta gazteria konkretuki.

### jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- EGKren eta gazte errealitatearen diskurtsoaren presentzia.
- Bilera kopuru eta kalitatea.
- Eragileekiko harremanaren sendotzea eta egonkortzea.

## 2.6.2 Beste gazteria kontseilu, erakunde eta administrazioarekin

### deskribapena

Arloarekin zerikusia duten gaien inguruan (etxebizitza, enplegua, espazio publikoa, oinarrizko errenta,...) instituzioekiko eta beste lurraldeetako gazte kontseiluekin harremana izan eta mantentzea.

### helburuak

- GAZTEEK-IN prozesu parte hartzailean bizibalintzak material arloko lan ildoak txertatu
- Instituzio edo administrazioarekiko gai konkretuetan harremana izan eta interlokuzioa ahalbidetu.
- CJE rekiko harremana izan, informazioa partekatu.
- Beste kontseiluekin harreman puntualak mantendu.

**ekintzak eta epeak (kronograma)**

Ekintza hau urtean osoan zehar gauzatzen da.

**hartzaileak**

- EAEko administrazio publikoa.
- CJE.
- Bestelako Gazte Kontseiluak.
- EGKko elkarteak
- Beste gazte eragileak
- Jendartea oro har eta gazteria konkretuki.

**jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak**

- EGKren diskurtsoren presentzia.
- Bilera kopuru eta kalitatea.
- Interlokuzioak emandako fruituak.

## 2.6.3 Barne koordinazioa

**deskribapena**

EGK barruko egitura eta funtzionamendua kontutan hartuta, barne koordinazioa mantentzea ezinbesteko lana da. Bai teknikarion artean, bai iraunkor eta batzarrarekin ere.

**helburuak**

- Bulegoko gestioak burutu.
- Beste teknikariekin elkarlana bideratu, gai ezberdinen zeharkakotasuna bermatuz.
- Jarraipen lana burutu hilabeteka.
- Memoria eta plangintzak zehaztu urtero.

**ekintzak eta epeak (kronograma)**

Ekintza hau urte osoan zehar gauzatzen da.

**hartzaileak**

- EGK barneko Batzorde teknikoa.
- EGK barneko elkarteak.

## 2.6.4 Posizionamendu Publikoak

### deskribapena

Arloarekin zerikusia duten gaiekiko (etxebizitza, enplegua, espazio publikoa, oinarrizko errenta,...) gertaera edo/eta testuinguruen aurrean EGKren diskurtso, balorazio eta iritzia azaleratzean oinarritzen da.

### helburuak

- EGKren iritzi ea diskurtsoa azaleratu gai ezberdinen inguruan.
- Momentuko gertaera eta errealitateari aurre hartu EGKren posizionamendua azaleratuz.

### ekintzak eta epeak (kronograma)

Ekintza hau urte osoan zehar gauzatzen da.

### hartzaileak

- EGK barneko elkarteak.
- Jendarte oro har eta gazteria konkretuki.

### jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- EGKren diskurtsoren presentzia.
- Jendarte eragileetan izandako inpaktua.
- Jendartean oro har eta gazterian lortutako oihartzuna.

# 3. JUSTIZIA ETA BERDINTASUN BALDINTZAK

## 3.1. KULTURARTEKOTASUNA

### 3.1.1 Dekalogoa eta protokoloa eratu

**deskribapena**

Egitasmo honen bitartez, azken urteotan EGK-ren baitan burutzen ari den hausnarketari jarraipena eman nahi zaio. Izan ere, 2007.urteko Asamblada Orokorrean onartutako Dekalogoa oinarri harturik alor honetan dauden ikuspegi ezberdinak jorratu nahi dira EGK-ren ahotsa zehazteko eta dokumentu hau eguneratu ere. Baita, hemendik atera nahi den protokoloari edukia eman ahal izateko. Horretarako, 2011. urtean egindako bideari jarraiki, prozesu honetan parte hartu nahi duten eragileen ahotsak kontutan hartu nahi dira 2012 urte honetan. Beraz, alde batetik alor akademiko eta profesionala lantzen duten eragileekin biltzen jarraituko da eta bestetik aniztasuna lantzen duten eragileekin eta etorkinen elkarteekin. Izan ere, errealitatea zuzenean ezagutzeaz gain, elkar ezagutza bultzatzen da etorkizunera begirako lankidetzak.

Marko teorikoa berregituratzeko alor hauek izango dira oinarri:

- Politikoa: herritartasunaren aitortza (subjektu politiko gisa), eskubide eta betebehar oroz (enplegua, etxebizitza, hezkuntza, mugikortasun askea eta generoa).
- Psikosoziala: jendarteko kide izatea alor guztietan, parte hartzea eta ikustarazpena oinarritzat hartuz.
- Kulturala: kultura ikuspegi zabal batetik, euskal kultura eta aniztasun kulturalaren arteko oreka bilduz.
- Bizikidetza: Jendarteko komunitateen arteko bizikidetzan sakonduz

**helburuak**

**Orokorrak**:

- Kulturartekotasunaren inguruan EGK-k izan nahi duen ahotsa zehaztu. Dekalogo batean jasotzeko eta plazaratu nahi dugun protokoloari edukia emateko

**Zehatzak:**

- Gazteengan kulturartekotasunaren eta aniztasunaren inguruko hausnarketa bultzatu
- EGK-ko elkarteei hausnarketa eta eztabaida zabaltzea.
- EGK-ren ahotsa jendarteratzeko zutabeak jartzea, marko teorikoa landuz eta garatuz.
- Elkarte, erakunde eta EGk-ren arteko harremana eta lankidetza.

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak

| | |
|---|---|
| | ERAGILE EZBERDINEKIN BILDU |
| | DEKALOGOA SORTU |
| | PROTOKOLOA SORTU |
| | PROZESUA EBALUATU ETA GIZARTERATU |

### Kronograma

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- EGK.
- EGKko kide diren elkarteak.
- Etorkin (aniztasun) elkarteak, etorkinekin (aniztasuna) ari diren elkarteak.
- Kultur elkarte eta eragileak.
- Gazte eragileak.

## ebaluaketa irizpideak

Prozezu honetan parte hartu nahi dutene elkarteen kopurua eta hauen inplikazio maila.

Bukerako erabilgarritasun erreala baloratuko da ere.

# 3.1.2 Kulturen arteko III Topaketa: Arrazakeria astiten!

## deskribapena



Proiektu honen eskutik kulturartekotasunaren eta aniztasunaren inguruan sumatzen den egituraketa faltari aurre hartu nahi dio. Gaia, zabala, konplexua eta askotarikoa izanik, gaia modu holistiko batean jorratu nahi da hirugarren edizio honetan, ahalik eta ikuspegi gehien jorratuz. Izan ere, gai polikromatikoa da (immigrazio eta kultura asko daude), polifonikoa (immigrazioa eta aniztasun kulturalari buruzko iritziak anitzak), multifaktoreduna (kari ugari dituena) eta poliedrikoa (immigrazioak eta aniztasun kulturalak aurpegi asko ditu). Gainera, euskara eta euskal kultura minorizatuta daudela aintzat hartu behar dira, gai konplexua ingurune konplexu batean txertatu behar delarik.

Jorratuko den gai nagusia ARRAZAKERIA izango da. Azken urte hauetan bizi dugun krisi egoera honek, arrazakeria eta xenofobia kasuek gora egin dezatela eragin du. Eta horregatik, arreta berezia jarri nahi izan diogu gai honi.

Lan taldea eratzeko EGK eta Bizkaiako Biluts elkartea elkarlanean hasi dira

## helburuak

**Orokorrak**:

- Bizi dugun krisia egoeran, arrazakerian eta xenofobian eman diren gorakadaren inguruan hausnartu eta orain arte mantentzen ditugun estereotipoak astindu.

**Zehatzak:**

- EGKren ahotsa kalean ezagutarazi.
- Kaleak ematen dituen aukerak aprobetxatu
- Gutxiengo etnikoen egoera ikustarazi eta jendarteratu.
- Identitate kulturalak eta aniztasuna ezagutu.

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak

| | |
|---|---|
| | ERAGILE EZBERDINEKIN BILDU |
| | TOPAKETAN PARTE HARTUKO DUTEN LAN TALDE BILERA |
| | TOPAKETA DISEINATU ETA DIFUSIOA |
| | TOPAKETA |
| | EBALUAZIOA |

### Kronograma



## hartzaileak

- EGKko kide diren elkarteak
- Kulturak lantzen dituzten elkarteak
- Gazte eragileak

## ebaluaketa irizpideak

Honetarako Biluts elkartearekin suertatuko den elkarlana baloratu egingo da.

Baita, topaketa honetan parte hartuko duten elkarteen kopurua, perfila eta aukera berditasunen irizpideak kontutan hartu diren hala ez.

Bestalde, administrazioarekin emango den elkarlana baloratu egingo da.

# 3.2. BERDINTASUNA

## 3.2.1 Berdintasun plana



### deskribapena

EGK-ko berdintasun arlotik, EGKrako *proiektu piloto* hau burutzea ikusi dugu. Askotan hitz egiten dugu zeharkakotasunaren inguruan, baina beharrezkoa ikusi dugu, gure erakundearen baitan, hau errealagoa izan ahal izateko, gaia bere osotasunean lantzea eta gainontzeko Administrazioen antzera, gure plan edota estrategia propioa izatea. Batetik, berdintasunaren inguruan gure posizionamendua indartzeko eta bestetik, kanpora begira, erreferentzialtasuna izateko.

### helburuak

**Orokorrak**:

- EGK-ren baitan aukera berdintasunaren inguruan duen informazioa, jarrera eta jokabideak aztertzea izango litzateke. Barrura begira eta kanpora begira ateratzen diren ekintzek aukera berdintasunaren aldeko apustua izan dezaten.

*Lehenengo fase eta urte honetarako hauek izango litzateke, errealitatearen analisiaren baitan:*

**Zehatzak:**

- EGKren baitan aukera berdintasunaren inguruan egon daitezkeen diskriminazio eta trabak identifikatu.
- Taldeko hausnarketa bultzatu.
- Elkarteen laguntza bermatu beraien errealitateak ezagutu ahal izateko.

### ekintzak eta epeak

**Ekintzak**

| | |
|---|---|
| | ERAGILE EZBERDINEKIN BILDU |
| | BERDINTASUN BATZORDEA- LAN TALDEAREN ERAKETA |
| | DIAGNOSIA |
| | LEHENENGO FASEAREN EBALUAKETA |

ONDORIOAK ETA HURRENGO PAUSUAK JASOKO DITUEN INFORMEA ERATU

## Kronograma




### hartzaileak

- EGKko Batzorde Teknikoa.
- EGKko Batzorde Iraunkorra.
- EGKk barne hartzen dituen elkarteak.
- EGKrekin kolaborazio lana egin ohi duten gainontzeko elkarteak.

### ebaluaketa irizpideak

Informazio bilketaren esanguratsutasuna.
EGKren baitako organo ezberdinen inplikazio eta kolaborazio maila.
Berdintasun Batzordearen eraginkortasuna eta barne hartzen dituen eragile kopuru zein lan kalitatea baloratu egingo da.

## 3.3. BESTE HARREMANAK

### deskribapena

Eguneroko lana dela eta, EGK-ko barne diren *teknikari zein elkarteekin* sortu daitezkeen kolaborazio lan eskaerei erantzun eman nahi zaie urtean zehar, aurten ere (erreportaiak, etab.)

Kulturartekotasun zein berdintasun arloak zeharkakotasuna izan dezaten EGKko ekintza guztietan eta, **GAZTEEK-IN** prozesu parte hartzailean Justizia eta berdintasunerako lan ildo hauek txertatzeko ere.

### helburuak

**Orokorrak**:

- Elkarte eta beste eragileekin atera daitezkeen elkarlanak indartu.

**Zehatzak:**

- Elkarte ezberdinak ezagutu eta lankidetza sortu
- Sortutako harremanak sendotu eta mantendu
- Gazte ikuspegia elkartegintzan txertatu
- Talde lanak dituen abantailaz elikatu

### ekintzak eta epeak

**Ekintzak**

| | |
|---|---|
| | ERAGILE EZBERDINEKIN BILDU eta ELKARLANA SUSTATU |
| | EBALUAKETA |

**Kronograma**

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

### hartzaileak

- EGK bera.
- EGK-ko elkarteak.
- Bestelako gizarte mugimendu eta gazte eragileak.
- Administrazioak.

### ebaluaketa irizpideak

Urtean zehaz suertatuko diren elkarlanak: kalitatea, kantitatea eta elkarrekin atera daitezkeen produktu kopurua.

## 3.4 BESTELAKOAK. EGUNEROKOAK

Egunero badaude ardura ezberdinak denbora eskatzen dutenak: Egoitzetako kudeaketa lanak, urteko plangintza eta memoriak; bilera teknikoak; eta batzorde iraunkorrarekin bilerak.

Urtean zeharreko ardura izango da hau eta ez dauka ebaluazio irizpiderik.

# 4. KOMUNIKAZIOA

## 4.1 GAZTE KOMUNIKATZAILEEN TOPAKETEN ABIATZEA

### deskribapena

GazteKom

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak gazte komunikatzaile euskaldunen lehenengo topaketak suspertu nahi ditu. Gazte komunikagintzaren sare bat osatzea beharrezkoa dela uste du EGK-ko Komunikazio Arloak. Izan ere, gaur egun "informazioaren gizartean" bizi garela errepikatzen baitigute behin eta berriz. Eta, "informazioaren gizarte" horretan, informazioa eta komunikazioa gizartearen bihotzean dauden zerbait dira. Alegia, gizartearen eta boterearen muinean dagoen zerbait. "Muin" edo "bihotz" horretan edo horretatik kanpo egotean dago gakoa: komunikatzeko eta informazioa zabaltzeko gaitasunik eta baliabiderik ez dutenek, bazterkeria mota bat jasaten dute (nolabait esatearren) informazioaren gizartean. Horregatik da hain garrantzitsua gizarte zibilak komunikazio gaitasun eta baliabideak izatea. Komunikazioa ezin baitaitekeelako komunikazio-enpresa gutxi batzuen esku geratu. Demokratizatu behar da. Gizarte zibil antolatuaren esku jarri ere, komunikazio-ezberdintasunak pixkanaka pixkanaka gainditzeko (komunikazio desberdintasunek bestelako gizarte-ezberdintasunak ere eragiten dituztelako -eta alderantziz-). Hori guztiagatik, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak komunikazioan trebatu eta jabetu nahi ditu gazte taldeak. Nola? Batetik, komunikazio-jabekuntzaren garrantziari buruzko eztabaida piztuz. Bestalde, komunikazio tresnak eta baliabideak eskaintzen lagunduz (pertsonak, azpiegiturak, euskarriak, kontaktuak); eta, bukatzeko, gazte komunikatzaileen arteko loturak josiz: hots, kazetariak, komunikazio-teknikariak, blogari eta hacktibistak zein komunikabide propiak garatzen dituzten gazteak euren artean harremanetan jarriz, komunikazio arloko esperientziak elkarbanatzeko eta gazteen komunikazio gaitasunak indartzeko proposamen bateratuak egin ahal izateko. Hori guztia egiten hasi ahal izateko, Gazteriaren Kontseiluak GazteKom topaketak abiatu nahi ditu (behin-behineko izena da GazteKom). Euskal Herri osoko gazte komunikatzaileei irekiko zaie deialdia eta Bilbon gauzatuko dira. Nabarmendu daiteke ere Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV-EHU) elkarlanerako aukerak aztertuko direla. EGK-k ez ditu topaketa hauek bere kasara egin nahi: gazte komunikatzaile ezberdinekin prestatu nahi ditu, ukondoz ukondo. Horretarako, 2012an topaketak antolatzeko lantalde bat sortu nahi du, 2013ko udaberrian lehenengo topaketak gauzatu ahal izateko,

### helburuak

**Orokorrak**:

- Gazte elkarte eta mugimenduak komunikazioan-jabetzea.

**Zehatzak:**

- Informazioaren gizartean komunikazio-jabekuntzak duen garrantziari buruzko eztabaida piztu.
- Komunikazio-sistema ezberdinen inguruko ezagutza piztu.
- Gazteen komunikabide propio ezberdinak ezagutarazi.
- Gazte komunikatzaileen sarea josten lagundu, esperientziak elkarbanatzeko eta gazteen komunikazio gaitasunak indartzeko proposamen bateratuak egin ahal izateko.
- Gazte elkarteei komunikazio gaitasun eta baliabideak erraztu.
- Euskara sustatu (topaketak euskara hutsean edo neurri handi batean euskaraz izatea da helburua).
- Gizarte-mailan gazte komunikatzaileen lana eta balioa ikustarazi (gazteen inguruan ohiko komunikabide handi askok eman ohi duten irudiarekin kontrajarriz).

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak (hilero)

Gazte komunikatzaile ezberdinekin lehenengo kontaktuak eta bilerak.
GazteKom topaketak (behin behineko izena) antolatzeko lantaldea osatu.
GazteKom topaketen diseinua egiten hasi.
Topaketen gauzatzea antolatu
Topaketak gauzatu.

### Kronograma (hilero, opor-aldietan izan ezik).

| Lehenengo hiruhilekoa | Bigarren hiruhilekoa | Hirugarren hiruhilekoa | Laugarren hiruhilekoa |
|---|---|---|---|
| | | | |

2013an: topaketak gauzatu (lehenengo sei-hilekoan).

## hartzaileak

- Gazte elkarte eta mugimenduetako komunikazio teknikariak.
- Komunikabide propioak dituzten gazteak.
- Kazetari gazteak.
- Blogari, *sarelari* eta hacktibista gazteak.
- Komunikazio ikasleak.
- Gaian interesa duten norbanakoak (gazteak zein heldu eta nagusiak).

## ebaluaketa irizpideak

Topaketen diseinuaz arduratuko den lantaldeak erabakiko ditu ebaluaketa irizpideak, topaketaren beraren diseinuaren arabera.

## 4.2 GAZTEBOL Hamabosteroko buletin elektronikoa

### deskribapena




GazteBol hamabostean behin bidaliko den buletin digitala izango da. Bertan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren azken albisteen berri emango du EGK-ko komunikazio arloak (orain arteko egkDigitala buletinaren edukia bertan txertatuz eta, ondorioz, egkDigitala desagerraraziz). Horrez gain, EGKren, EGK-ko kide diren taldeen eta beste elkarte batzuen agenda-proposamenak bilduko dira. Bestetik, GaztePress atala ere izango du. Alegia, orain arte EGK-k bi astero behin bidaltzen zuen GaztePress buletin digitala bertan txertatuko da ere. Zehazki, gazteekin lotuta komunikabide ezberdinek argitaratu dituzten albisteak biltzen ditu atal horrek, gaika sailkatuta. Beste zenbait eduki izango ditu GazteBol-ak ere: EGKren azken argitalpenak, EGKren Gazte Borraste irratsaioak eta bestelako lotura interesgarriak, esaterako. Laburtzearren: gazteek gazteentzat egindako hamaboskari bat izango da.

### helburuak

**Orokorrak**:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren, gazte elkarteen eta bestelako gizarte eragileen lana eta deialdiak ikustaraztea eta balioan jartzea da buletin-digitalaren helburu nagusia.

**Zehatzak:**

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileei komunikazio euskarri bat eskaintzea.
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Gazte elkarteen eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikustarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%60-%70euskaraz).

### ekintzak eta epeak

## Ekintzak (hilero)

- Buletina osatu eta bidali.
- Buletina osatu eta bidali.
- Buletinaren ebaluazioa egin.

## Kronograma (hilero, opor-aldietan izan ezik).

| Lehenengo astea | Bigarren astea | Hirugarren astea | Laugarern astea |
|---|---|---|---|
| | | | |

Abenduan: Buletinaren ebaluazioa egin,

## hartzaileak

- **800 harpidedun**:
  - EGKko elkarteak.
  - Beste gizarte mugimendu batzuk.
  - Gazte-bulegoak.
  - Gazteria arloko teknikari eta politikariak.
  - Harpidetza egin duten norbanakoak.

- **Sare sozialetako 4.500 jarraitzaileak:**
  - EGKko elkarteak, beste gizarte mugimendu batzuk, norbanakoak, gazte informazio bulegoak...

## ebaluaketa irizpideak

**Urte amaieran**, elkarteek buletin digitala ebaluatzeko **fitxa** bat jasoko dute. Bertan, maiztasuna, formatua, albisteen aniztasuna, hizkuntza-irizpidea eta informazioa bidaltzeko modua ebaluatuko dute, beste irizpide batzuen artean.

# 4.3 GAZTERIAREN KONTSEILUAREN ZERBITZU KATALOGOA

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak gazte elkarteei eskaintzen dizkien zerbitzuen gida.




## deskribapena

Ezagutzen ez den eskaintza, ez da eskatzen. Hori dela eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Arabako elkarteentzat zerbitzu-katalogoa argitaratu nahi du. Asko dira EGK-k elkarteei eskaintzen dizkien zerbitzuak: gazte elkarteen informazioa zabaltzeko komunikazio euskarriak (webgunea, sare sozialak, posterrak, aldizkariak…), komunikabideen bitartez komunikazio kanpainak egiteko aholkularitza, komunikabideekin kudeaketa lana, administrazioekin bitartekaritza lana, beste gazte elkarte eta gazte eragileekin kontaktuan jartzeko lana, gazte talde eta jendarte mugimenduen zein administrazioaren gazte arloen informazioa eta kontaktua errazteko lana, lantaldeak koordinatzeko lana, materiala eta gelak utzi… eta abar luzea. Finean: elkarteek probetxua atera diezaiokete Gazteriaren Kontseiluari. Hori ahalbidetzeko, zerbitzu-katalogo bat argitaratu nahi du gazte elkarteen sareak.

## helburuak

**Orokorrak**:

- Arabako gazte elkarteek Gazteriaren Kontseiluaren zerbitzu eta lanei probetxua atera diezaieten zerbitzu-katalogoa argitaratu.

**Zehatzak:**

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileei
  Gazte elkarteen lana errazteko eta eragina handitzeko gazteriaren kontseiluak eskaintzen dituen zerbitzu eta proiektuen berri eman.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak egiten duen lana ikustarazi eta balioan jartzea.

## ekintzak eta epeak

**Ekintzak (hilero)**

- Zerbitzu katalogoa idatzi
- Zerbitzu katalogoa maketatu eta inprimatu
- Zerbitzu katalogoa zabaldu

Zerbitzu katalogoaren ebaluazioa egin

**Kronograma**

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- EGK-ko elkarteak.
- Bestelako gazte talde eta eragile batzuk.
- Webguneko bisitariak eta sare sozialetako jarraitzaileak.
- EGK bera (inbertsioaren itzulera).

## ebaluaketa irizpideak

Zerbitzu-katalogoarekin batera ebaluazio-orri bat banatuko da, elkarte era eragileek katalogo horretan bildutako edukia ebaluatu dezaten. Horrez gain, EGK-ko Komunikazio teknikariak kontraste-saioa egingo du, EGK-ko Batzorde Iraunkorreko Komunikazio arduradunarekin batera.

# 4.4 KOMUNIKABIDEEN GIDA

Euskal Herriko komunikabideen kontaktuen gida gaurkotua.

## deskribapena

Gutunik onenak ere ez du ezertarako balio postontzi okerrera bidaltzen baduzu. Nahiz eta komunikazio-kanpaina onak diseinatu, ez zaizkigu ezertarako balio izango baldin eta hartzaileen kontaktu zuzenik ez badugu. Hori sarritan gertatu izan da bai Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan bai elkarteen baitan ere.

Eskatzen dituztenean, Komunikazio Arloak komunikabideen kontaktuak errazten dizkie EGK-ko taldeei eta bestelako gizarte mugimenduei ere. Gauza da zaharkitua geratu direla kontaktu horiek, bai EGKren bai elkarteen kalterako ere. Hori dela eta, Komunikazio teknikariak Komunikabideen gida gaurkotua garatuko du 2012an.

## helburuak

**Orokorrak**:

- Euskal Herriko komunikabideen gida gaurkotua izatea da helburu nagusia, EGKren lana eta beste elkarteen jarduera ere zuzen gizarteratu ahal izateko.

**Zehatzak:**

- Elkarteei komunikazio-baliabideak erraztea.
- Gida gaurkotzeko, komunikabideekin harremana mantentzea.

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak

- EGKren komunikabideen gidaren lehenengo gaurkoratzea egin, Eusko Jaurlaritzaren komunikabide-helbidetegia abiapuntu
- Komunikabide bakoitzean harremanetarako kontaktua lotzea (deiak, bilerak).
- Gaurkotutako katalogoa dokumentu batean bildu eta zabaldu (webgunea, eskaria...).

### Kronograma



## hartzaileak

- EGK bera.
- EGK-ko elkarteak.
- Bestelako gizarte mugimendu eta gazte eragileak.
- EGK-ko Komunikazio Tailerretako ikasleak.

## ebaluaketa irizpideak

Ez da ebaluaketa irizpiderik zehaztu. Komunikabideen gida eskatzen duten elkarteen jarraipena egingo du Komunikazio Arloak.

## 4.5 BERRIZ BERRI. Hileroko poster agenda

**Deskribapena**








Entzun ez dena, ez dago esana. Edo, beste era batera esanda: komunikatzen ez dena, egina ez balego bezala geratzen da askotan. Egiten dutena komunikatu behar dute gazte elkarteek eta jendarte eragileek, gizarte mailan eragina izan dezan. Baina, tamalez, elkarte askok eta askok ez dute komunikazioa lantzeko behar adina baliabiderik, ez eta komunikatzeko euskarririk ere ez. Hori dela eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak helburu argi bat du (beste batzuen artean): gazte elkarte eta gazte eragileen megafono izatea. Alegia, komunikazio-baliabideak erraztea. Horretarako, hainbat zerbitzu eta euskarri eskaintzen ditu. Horietako bat Berriz Berria da: hots, 1999az geroztik, milaka gazte elkarte, jendarte mugimendu, liburutegi, institutu, fakultate, alderdi, politikari, sindikatu eta gazte bulegok jaso duten poster-agenda. Bertan, **hilero-hilero 10-12 albiste** argitaratzen ditu Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Orokorrean, baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileen deialdiak biltzen ditu posterrak, bai eta gazte-zerbitzu zein parte-hartzerako euskal agentziena ere. Gehienetan elkarteek edo gizarte eragileek eurek bidaltzen dituzte bere deialdiak eta albisteak Gazteriaren Kontseiluko Komunikazio Arlora, Berriz Berrian argitaratu ditzan. Horrez gain, enkarteak ere egiten ditu EGK-k: hau da, elkarteek beraiek hala eskatuta, eskuorriak, kartelak, bideoak edota txostenak bidaltzen ditu Berriz Berriarekin batera. Benetan estimatua da Berriz Berria. Zergatik? Elkarte askok eta askok ez dutelako beste modurik milaka postontzi eta mail-helbidera heltzeko. Horregatik estimatzen dute Berriz Berria. Batetik, bertan bere deialdiak zabaldu ditzaketelako. Bestetik, informazioa jasotzeko ere balio zielako. Zehazki, EAEko **1.350 postontzi** ezberdinetara iristen da, paperean. Zehazki, gazte-elkarteei, beste gizarte mugimenduei, gazte bulegoei, udaletxe eta aldundietako gazteria arloei eta liburutegi eta gizartetxeei bidaltzen die Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Horrez gain, Euskal Herriko **beste 800-bat helbidetara iristen da pdf-an.** Bestalde, **Tuenti, Twitter eta Facebooken Gazteriaren Kontseiluak dituen 4.500dik gora jarraitzaileek** ere jasotzen dute Berriz Berri poster agenda. Horiei guztiei www.egk.org webgunearen bisitariak gehitu behar zaizkie (23.000 bisitari ezberdin urtean), bertatik ere deskargatu baitaiteke.

.

## helburuak

**Orokorrak**:

- Gazte elkarteen eta gizarte eragileen lana eta deialdiak ikustaraztea eta balioan jartzea. Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileentzat komunikazio euskarri bat eskaintzea.

**Zehatzak:**

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileentzat *komunikazio euskarri bat eskaintzea.*
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Gazte elkarteen eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikustarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%70-80 euskaraz).

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak

Berriz Berrian informazioa txertatzeko deialdia ireki
Berriz Berria idatzi eta maketatu
Berriz Berria zabaldu (enkartearekin, kasua kasu).
Berriz Berriaren ebaluaketa egin

### Kronograma (hilero, uztaila eta abuztuan izan ezik).

| Lehenengo astea | Bigarren astea | Hirugarren astea | Laugarren astea |
|---|---|---|---|
| | | | |

Abenduan: Berriz Berriaren ebaluaketa egin

## hartzaileak

- **Papereko alearen 1.350 harpidedun EAEn**:
  - EGKko elkarteak.
  - Beste elkarte batzuk.
  - Gazte-bulegoak.
  - Liburutegi eta gizartetxeak.

- **Ale digitalaren 800 harpidedun**:
  - EGKko elkarteak.
  - Beste gizarte mugimendu batzuk.
  - Gaztetxeak.
  - Gazte-bulegoak.
  - Gazteria arloko teknikari eta politikariak.
  - Harpidetza egin duten norbanakoak.

## ebaluaketa irizpideak

**Urte amaieran**, elkarteek Berriz Berria ebaluatzeko **fitxa** bat jasoko dute. Bertan, maiztasuna, formatua, albisteen aniztasuna, hizkuntza-irizpidea eta informazioa bidaltzeko modua ebaluatuko dute, beste irizpide batzuen artean.

# 4.6 BIDEO BATEN EKOIZPENA. EGK ETA GAZTE MOBILIZAZIOA BULTZATZEKO LANA

## deskribapena



Euskadiko Gazteriaren Kontseilua komunikazio-formatu berrietara egokitu behar du bere lana, gazteen artean bere mezua modu eraginkorrean zabaldu nahi badu. Hori dela eta, EGK-k bere estreineko bideoa egingo du 2012an. Zehazki, gazte-elkarteen sarearen lana gizarteratu nahi du lan horretan, bai eta gazteen parte-hartze eta mobilizaziorako deia egin.

.

## helburuak

**Orokorrak**:

- Gazteen parte-hartze eta mobilizaziorako dei egin eta EGKren lana gizarteratu.

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak

Bideoaren behin-behineko gidoia idatzi.
Ekoizpen lana (elkarrizketak lotu, grabazioak planifikatu…).
Grabatu.
Behin betiko gidoia idatzi.
Editatu.
Zabaldu.

### Kronograma



## hartzaileak

- Norbanako gazteak.
- EGK osatzen duten elkarteak.
- Bestelako gazte mugimenduak.
- Gazteria teknikariak.
- Gazteria arloko politikariak.
- Komunikabideak.

## ebaluaketa irizpideak

Behin bideoa zabalduta, bideoaren inpaktuen jarraipena egingo du Komunikazio teknikariak (Youtubeko ikusleak, sare sozialetan interakzioak, egk.org webgunean bisitariak, komunikabideetan agerpenak...). Horrez gain, bai EGK-ko Batzorde Teknikoak bai Batzorde Iraunkorrak ere bideoaren ebaluazioa egingo dute bilera batean, eta aktan jasoko da.

## 4.7 GAZTE BORRASTE IRRATSAIOA TAS TAS IRRATI LIBREAN










### deskribapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Gazte Borraste irratsaioa egiten du bi astean behin Tas Tas irrati librean (97 FM Bilbon). Gazte-errealitate ezberdinei buruzko ordu bateko espazioa da.

Bi astelehenean behin emititzen da, 20.00etatik 21.00etara. Hurrengo egunean, asteartean, 09.00etatik 10.00etara emititzen da berriro ere. Horrez gain, zatirik txukunenak larunbatetan Tas Tas eta Irola irrati libreek elkarrekin egiten duten Al Abordaje saioan ere emititzen dira. Webgunean ere podcastak eskuratu daitezke, http://tas-tas.org/web/eu/gazte-borraste helbidean.

Gazte Borraste irratsaioa bi arlok egiten dute: Komunikazio teknikariak eta Bizkaiko Koordinatzaileak, beti ere EGK-ko beste arloetako laguntzarekin.

Saioak bi gako ditu: gazteak eta elkartegintza. Bi zutabe horien gainean eraikitzen ditu EGK-k eduki guztiak. Hainbat atal ditu irratsaioak:

**Titularrak eta Suplenteak**: gazteei buruz eta elkarteei buruz komunikabide ezberdinetan argitaratutako albisteen berri ematen duen atala.

**Haria eta orratza:** gai zentrala. Atal honetan, elkarte eta gazte mugimenduekin elkarrizketa eta solasaldiak egiten ditu EGK-k.

**Zure belarrira** (aldizka)**:** gazte-elkarte eta mugimenduen iritzi-zutabeak, unean-unean.

**Agenda:** jendarte mugimendu ezberdinen deialdiak biltzen dituen atala.

## helburuak

Hainbat helburu ditu Gazte Borraste irratsaioak:

- Gazteen **errealitate ezberdinen berri** ematen du, begirada gazte batetik.
- Komunikabide handietan **lekurik ez dituzten ahotsak** entzunarazten ditu.
- **Gazte elkartegintzaren bozgorailu** izan nahi du.
- Gazte elkarteei **mikro-irekiko espazio bat** eskaintzen du.
- Gazte elkarteak eta mugimenduak **komunikazioan trebatzen** laguntzen du.
- Gazte elkarte eta mugimenduen **audioteka** (audio material bilketa) osatzen laguntzen du.
- Gazte **elkarteekin harremana** estutzen laguntzen du.
- Bere inguru hurbilenarekin konpromisoa duen eta bere inguru hurbilenean parte hartzen duen tokian-tokiko **komunikabide bat** sustatzen laguntzen du, euskaraz.
- Gizarte zibil antolatuaren **komunikazio eskubidea** gauzatzen laguntzen du.

**Gazteak abiapuntu eta gazteak jomuga dituen irratsaio bakarrenetarikoa** da Gazte Borraste Euskal Herriko irratigintza-parrillan. Gazteria zeharkako-ikuspuntu bezala txertatzen du jorratzen diuen gai guztietan. Izan ere, EGK-k uste baitu Política guztiek (eta ez soilik Gazteria Politikek) eta proiektu guztiek (eta ez bakarrik gazteen proiektuak) eragina izan dezaketela gazteen errealitate anitzetan. Mundua gazteen ikuspuntu ezberdinetatik begiratu nahi du Gazte Borrastek. Begirada hori da seguraski irratsaioa berezi bilakatzen duena.

## ekintzak eta epeak

Aipatu bezala, EGK-k bi astean behin egiten du irratsaioa. **Astelehen eta asteartean** emititzen bada ere, irratsaio grabatua da eta, hortaz, edozein egunetan grabatu ohi da, astean zehar, elkarrizketatutako elkarteen ordutegiaren arabera.

Hauek dira irratsaioak eskatzen dituen lanak:

Ekoizpen lana. Elkarrizketatuekin hiztordua lotu, musika eta kuinak aukeratu...
Gidoia idatzi.
Irratsaioa grabatu.
Irratsaioa editatu eta zerbitzarira igo.
Irratsaioaren podcacst-a egin.
Irratsaioaren difusio-lana egin.

## hartzaileak

Tas Tas irratiko entzuleak.
EGK osatzen duten elkarteak eta beste gizarte mugimendu batzuk (irratsaioaren berri ematen baizaie).
EGK Internet bidez jarraitzen duten gazteak eta norbanakoak.
Gazte elkarte eta mugimenduak eurak, euren mezuak helarazteko baliatzen baitute Gazte Borraste, bai eta komunikazioan trebatzeko ere.

## Jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Komunikazio teknikariak Gazte Borrasteren gai eta elkarrizketatuen jarraipen eguneratua egingo du, eduki eta parte-hartzaileen aniztasuna bermatze aldera.

## 4.8 GAZTEPRESS prentsa-buletina Gazteen kioskoa




### deskribapena

Hamabostero bidaltzen den buletin digital bat da. Gazteei buruzko edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen albisteak bildu eta sailkatu egiten ditu.

Hamar gai-multzo daude:

-Hezkuntza formala/ez formala.
-Elkarteen berri.
-Enplegua.
-Euskara.
-Etxebizitza.
-Astialdia.
-Ekimen kulturalak.
-Generoa.
-Aniztasuna.
-Garapenerako lankidetza.
-Osasuna.
-Gazteak eta administrazioa.

### helburuak

**Orokorrak**:

- Hartzaileei gazteei buruz diren berriak eta gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen berriak gaika sailkatuta helaraztea.

**Zehatzak:**

- “Gazteena eta/edo gazteentzat” irizpidea duen sailkapena bermatu (bakarra modu honetakoa EAEn).
- Gazteen inguruko albisteen eduki-jarraipena egin.
- EGK-ko teknikariei bere arloko lanarekin lotuta egon daitezkeen albisteen berri eman.
- Webguneko ‘Gaur Prentsan’ atala eguneratua izatea.

### ekintzak eta epeak

Komunikazio Arloak ia egunero hornitzen du GaztePress atala, eta hamabostean behin egiten du bidalketa.

## hartzaileak

GaztePRESSek gaur **egun 750 harpidedun** baino gehiagorenera heltzen da: besteak beste, EGK-ko elkarteak, beste elkarte batzuk, gazte informazio bulegoak, zenbait komunikabide, talde politikoak, Eusko Jaurlaritza, Aldundietako eta udaletxetako zenbait teknikari daude hartzaileen artean.

## ebaluaketa irizpideak

Ez dago ebaluaketa irizpiderik bermatu.

# 4.9 Durangoko Azoka. Gazte elkartegintzaren erakuslehio.




## deskribapena

EGK-k stand bat ordaintzen du Durangoko Azokan eta Kontseilua osatzen duten elkarteei stand-ean parte hartzeko aukera luzatzen die. Baliabide materiala eskaintzeaz gain, azokan parte-hartzeko kudeaketa eta koordinazio lana egiten du Komunikazio Arloak.

## helburuak

**Orokorrak**:

- Gazte elkarteen lana ikustarazi.

**Zehatzak:**

- Materiala banatu/saldu.
- Elkarteen arteko ezagutza sustatu.
- Jendearekin harreman zuzenerako ‘leihatila’ izan.
- Euskara eta euskal kulturgintza sustatzeko hitzordu batekin bat egin.

## ekintzak eta epeak

**Ekintzak**

EGK-ko elkarteen artean deialdia ireki.
Elkarteekin bildu eta katalogoa osatu
Azokan parte hartu.
Ebaluazio bilera.

**Kronograma**

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- Parte hartu nahi duten EGK-ko elkarteak.
- Durangoko Azokara dihoazenak.

## ebaluaketa irizpideak

Azokan parte hartzen duten elkarteekin ebaluazio bilera egiten du EGK-k, azoka ospatu eta 10 egunetara, gutxi gora behera.

# 4.10 WEB orrialdea eta SARE SOZIALAK kudeatu




## deskribapena

Webgunea (www.egk.org) eta sare sozialetan ditugun profilak (Twitter, Facebook eta Tuentin) eguneratzen ditu EGK-k ia egunero.

## helburuak

- EGKren atarian EGKren jardueren informazio gaurkotua argitaratzea.
- EGKren argitalpenak interneten eskuragarri jartzea.
- EGK-elkarteen eta EGK-koak ez diren elkarteen jardueren berri ematea, webguneko agendan.
- Gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albisteak jasotzea.
- Elkarteen direktorio gaurkotu bat mantentzea.
- EGK-ren irudia zaintzea.
- Hori guztia sare sozialen bidez gizarteratzea.

## ekintzak eta epeak

Ia egunero gaurkotzen ditu Komunikazio Arloak bai webgunea (www.egk.org) bai sare sozialetan kudeatzen dituen profilak ere (Twitter, Facebook eta Tuentin).

## Hartzaileak

Webguneko bisitariak (23.000 bisitari ezberdin aldera urtean).
Sare sozialetako jarraitzaileak (3.357 Facebooken, 480 Twitterren eta 500 baino gehiago Tuentin).

Profilari dagokionez, oro har gazteak, elkarteak edo gazte eragileak dira.

## Ebaluazio irizpideak

Googke Analytics bitartez neurtzen ditu Komunikazio Arloak webgunera bisitak.

Bestalde, sare sozialek bere jarraipen-sistema eskaintzen dute.

# 4.11 AHOTIK AT ALDIZKARIA. 10.alea. Hirigintza barnetzailea eta gazteon parte-hartzea

## deskribapena

Ahotik At EGK-ren sei-hileroko aldizkaria da. 2012an (2011n bezala), diru faltagatik, bakarra egingo du Komunikazio Arloak, Bizi Baldintza Materialak Arloarekin batera. Zehazki, 10. aleak hirigintza barneratzailea eta gazteon parte-hartzea aztertuko du. Izan ere, Bizi Baldintza Materialak arloak gai honen lanketaren aldeko apustua egingo baitu aurten.

## helburuak

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren baitan eta bestelako gazte eragileen artean hirigintza barneratzailearen inguruko eztabaida eta hasunarketa piztea.

## ekintzak eta epeak

**Ekintzak**

- Eskaleta idatzi.
- Artikuluak idatzi eta lotu.
- Aldizkaria maketatu.
- Aldizkariaren zabalpena egin.

**Kronograma**




## hartzaileak

600-bat ale argitaratuko dira paperean. Hartzaileak honako hauek izango dira, besteak beste:

- EGK-ko elkarteak.
- Beste gazte elkarte eta mugimendu batzuk.
- Gazte bulego eta enpleguko teknikariak.
- Hirigintza barneratzailea lantzen duten eragileak.
- Liburutegi eta kultur-etxeak.
- Institutu eta fakultateak.

- Egunkari, irrati eta telebistako erredakzioak.

Horiez gain, beste 800-bat ale bidaliko dira webmail bitartez.

Bestalde, webgunean ere eskuratu ahal izango da aldizkaria.

## ebaluaketa irizpideak

Aldizkaria idatzi baino lehen, erredakzio-taldeak ebaluaketa-irizpideen taula bat osatuko du. Behin aldizkariaren zabalpena egiten denean, irizpide horiek bete ote diren ebaluatuko du ebaluazio-bilera batean, bai eta idatziz jaso ere.

# 4.12 KOMUNIKAZIO KANPAINAK



## deskribapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren eta berau osatzen duten elkarteen lana, jarduerak eta posizionamenduak gizarteratzeko, komunikazio kanpainak diseinatzen eta gauzatzen ditu EGK-ko Komunikazio Arloak. Kanpaina horiek hainbat pausu barnebiltzen dituzte: webgunea, sare sozialak, mailing-ak, EGK-ren argitalpenak, bestelako euskarriak (posterrak, buletin digitalak...) eta komunikabide-kanpaina (prentsa-oharra, prentsaurrekoa, prentsa gosaria zein neurrira lotutako gaiak).

## helburuak

**Orokorrak**:

- Gazteen eskubideen alde egitea.
- Gazte elkartegintza ezagutaraztea.
- Komunikabideek gazteei buruz ematen duten irudia hobetzea.

**Zehatzak:**

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren lana, jarduerak, deialdiak eta iritziak ezagutarazi.
- EGK-k parte hartzen duen sareen lana eta jarduerak, deildiak eta iritziak ezagutarazi.
- EGK osatzen duten elkarteen lana jendarteratu.

## ekintzak eta epeak

**Ekintzak:**

Komunikabide-kanpainek hainbat lan eskatzen dituzte:
Webgunea edukiz hornitzea.
Sare sozialetan edukia sortu eta elkarbanatzea.
Mailingerako edukia sortu eta bidalketa egitea.

EGK-ren argitalpenetan informazio-txertaketa aurreikusi.
Bestelako euskarriamk baliatu (posterrak, buletin digitalak...).
Komunikabide-kanpaina gauzatu (prentsa-oharra, prentsaurrekoa, prentsa gosaria zein neurrira lotutako gaiak).

**Kronograma:**
Unean-uneko jarduera eta gertaeren arabera abiatzen dira komunikazio-kanpainak. Gutxienez hilean bat egiten da.

## hartzaileak

- EGK bera.
- EGK-ko elkarteak.
- Euskal Herriko komunikabideak.
- Komunikabideen irakurle/entzule/ikusleak.
- EGK-ko webgunearen bisitariak (urtean 24.000 bisitari ezberdin).
- EGK-ko sare sozialen jarraitzailea (4.500 baino gehiago).
- Bestelako euskarrien hartzaileak (Berriz Berri posterra, buletin digitalak eta beste argitalpen eta euskarri batzuk).

## ebaluaketa irizpideak

Kanpaina bakoitzak bere jarraipen eta ebaluaketa propioa dauka.

# 4.13 ELKARTEENTZAT KOMUNIKAZIO AHOLKULARITZA



## deskribapena

Gazte elkarteek (modu batean edo bestean) jendartea eraldatu nahi dute. Eta, horretarako, jendartearenera heldu behar dira. Horretarako, gizartearekin komunikatu behar dira. Helburu horretan, komunikabideak ezinbestekoak dira. Baina, tamalez, gazte elkarte askok ez daukate komunikabideez baliatzeko komunikazio-arduradunik, ez eta baliabiderik ere. Horregatik, Gazteriaren Kontseiluak komunikazioan-aholkularitza eta baliabideak eskaintzen dizkie EGK osatzen duten elkarteei, bai eta eskakizuna egiten duten bestelako gizarte-mugimenduei ere. 2012an zehar, zehazki (eta eskakizun zehatzei erantzuna emateaz gain) hiru tailer antolatuko ditu EGK-k: Gasteizen, Bilbon eta Donostian. Ikastaro horietan, elkarteek komunikabideak modu probetxugarrian baliatu ditzaten dinamikak antolatuko dira.

## helburuak

**Orokorrak**:
- Komunikabideetan gazte elkarteen presentzia indartu

**Zehatzak:**
- Gazte elkaretek komunikabideak eta bestelako komunikazio-euskarriak modu probetxugarrian baliatu ditzaten.

## ekintzak eta epeak

**Ekintzak**
- Ikastaroa diseinatu.
- Ikastaroa antolatu (gela, hizlariak, materialak).
- Deialdia zabaldu.
- Ikastaroa gauzatu.
- Ikastaroa ebaluatu.

**Kronograma**




## ebaluaketa irizpideak

Ikastaroaren edukia behin guztiz ixterakoan, ebaluaketa-irizpideak ezarriko ditu EGK-ko Komunikazio Arloak. Hori bai: lehenengo, parte-hartzaileek ebaluazio-orria betetzeko aukera izango dute; ondoren, hizlari eta antolatzaileen arteko ebaluazio-bilera egingo da.

## 4.14 BESTELAKOAK

KOLABORAZIOAK KUDEATU:
Goitibera, Gazteen Berriak eta Bizkaia Irratia eta kolaborazioa eskatu lezaketen bestelako hedabideekin kolaborazioak (artikuluak, mahai-inguruetan parte-hartzea…) kudeatu, EGKren eta EGK-ko elkarteen lana iukstarazteko.

INDARTZEN PROZESUAN PARTE HARTU:
Etorkizuneko Gazteriaren Kontseilua diseinatzeko prozesuan parte-hartzen du EGK-ko Komunikazio Arloak.

BERNE KOORDINAZIOA:
Batzar Teknikoan, Batzorde Iraunkorrarekin bileretan eta Batzar Orokorrean parte-hartzea, besteak beste.

# 5. LURRALDETASUNA

## 5.1 GAZTEEK-IN: GAZTERIA POLITIKA INTEGRALAK LANTZEKO PROZESU PARTE HARTZAILEA

**deskribapena**

GAZTEEK-IN, 2012ko urtean zehar garatu nahi den proeiktua da, gazteria politikak integralki lantzeko prozesu parte hartzailea hain zuzen ere. Prozesu honen funtsa gazteriaren parte hartzea estrukturatu eta bermatzea da, gazteriari zeharka edo zuzenki eragiten dien politiken garapenean, implementazioan zein ebaluazioan.

Prozesu hoen bidez, Gazteria Politika Integralen Sistemara [GP(i)S] hurbildu eta etrokizun hurbil batean berau martxan jartzeko baldintzak jarri nahi dira. Bidean, gazteak oro har eta gazte eragileak zein administrazio ezberdinetako teknikari eta arduradunak elkar harremandu eta konfiantza guneak eraiki nahi dira, bai eta egungo erronka nagusiei aurre egiten saiatu: lana, etxebizitza, hezkuntza formala-ez formala, genero ikuspegia, kulturartekotasuna edo komunikazioa besteak beste. Horretarako, fase ezberinak planteatzen dira dira:

1. Prozesu parte hartzailearen diseinua eta aktibatzea: Fase honetan, EGKko elkarteekin lurraldekako lanketa bideratu eta prozesuaren kronograma adostu beharko da, baita administrazio ezberdinen iritziak, aportazioak barnebildu ere. Honekin batera, EGKtik kanpo dauden gainontzeko eragile potentzialak identifikatu eta lehenengo hurbilketa egitea planteatzen da, bai eta prozesuan zehar dinamika ezberdinen diseinuan lagunduko duten adituekin elkarlanari hasiera ematea ere.

2. Eztabaida egituratuen antolaketa: Lehenago aipaturiko gai edo erronka eberdinen inguruan eztabaida pizteko mintegi irekien antolatze lana burutuko da, prozesuan zehar parte hartuko duten aktoreak ere lanketa honetan barnebilduz, beharren identifikazioan eta eztabaiden egiturakean besteak beste. Behin prestatuak, egun eta herrialde ezberdinetan egikarituko dira, ebaluazio eta ondorio txostenak aterako direlarik.

3. Topaketa nagusia eta prozesuaren jarraipena: Aipatu ondorioak eskuan eukita, hauek aztertu eta aurrehartzeko lana burutzeko topaketa nagusi bat egitea aurreikusten da azaroan: GP(i)Sa herraminta bezala nola funtzionatu beharko lukeen, ze herraminta mota martxan jarri behar diren, administrazioen arteko erantzunkidetasuna, EGKren papera, elkarteena, gazteena orohar etab.

Behin gauza guzti hauek aztertuta, prozesu parte hartzaileak beste fase batean sartuko litzateke, parte hartzaileek zehaztuko dutelarik honen etorkizuna. Gainera, EGK-k egun bizi duen berregituraketa eta berdefiniziorako oso baliagarria izan daiteke, etorkizuneko kontseiluak izan beharko lituzkeen jardunak, egiturak eta funtzionamendu egokia bilatze bidean.

## helburuak

**Orokorrak**:

- Gazteria politiketan sare lana, parte hartzea eta zeharkakotasuna landu.

**Zehatzak:**

- EAEn zein lurraldeetan gazteria perspektiba lantzen duten eragileak elkar-harremandu.
- Eragileen arteko marko teoriko amankomuna osatu.
- Gazteria politiken integraltasuna lortzeko erremintak diseinatu.
- Gazte elkarteak ahaldundu.
- Gazteekin zerikusia duten gaien inguruan gazteak oro har aktibatzea.
- Gaztelink eta sare sozialak eztabaidarako jarraipen tresna gisa erabili.

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak

Prozesu parte hartzailearen diseinua eta aktibatzea.
Eztabaida egituratuen antolaketa eta egikaritzea.
Topaketa nagusia burutu eta ondorioen azterketa.

### Kronograma

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- EGK eta EGKko elkarteak.
- EAEko eta Lurraldetako gainontzeko gazte elkarteak.
- EAEko Administrazio ezberdinak.
- EAEko Gazte ez elkartuak.

## ebaluaketa irizpideak

- Parte hartzaile kopurua eta beren perfilak.
- Prozesuan zehar parte hartzaile guztien artean sortutako sinergiak, harremanak, konhfiantza eta elkarlana.
- Eztabaida egituratuetatik sortutako ondorio eta baliabide teorikoak.
- Topaketa nagusian diseinatutako herraminta praktikoak.
- Komunikabide eta sare sozialetan izandako ohiartzuna, jarraipena.

# 5.2 EGK ETA BARRUKO ELKARTEEKIKO LANA

## deskribapena

Egun, 57 elkartek osatzen dute EGKk duen kidegoa. Hori guztien artean, aniztasuna da nagusi: ekologistak, alderdi politikoetako gazteriak, kulturartekotasuna, gutxiengo kulturak, astialdi taldeak eta eskolak, kristau gazteak, ikasleak, ezintasun fisikodunak, bakezaleak eta antimilitaristak. Bakoitzak bere esparrutik, eskaintzeko asmoarekin parte hartzen du EGKn, horrela bi norabidezko erantzukizuna sortuz.

Erantzukizun horrek behar batzuk sortzen ditu, bai elkarteekiko bai EGKrekiko. EGKko lurraldetasuna arloari dagokionez, elkarte horien gainean, beharrak, laguntza, aholkularitza, informazioa, sare lanean sartzea, elkarlanera bultzatzea ditu helburu. Era berean, barneko sare lana bultzatu: elkarteen arteko harremana eta elkarlana bultzatu, suspertu eta indartu.

Baina guzti honetarako elkarte bakoitzaren egiturak eta funtzionamenduak bermatuta egon behar du. Elkarteen parte hartzea beste gauzetan ez da posible euren lehentasunak asetuta ez badituzte, euren gutxiengo funtzionamendua bermatuta ez badute.

Hein handi batean, horretan datza lurraldeko koordinatzailearen lana: elkarteen egoerari so egitea, euren beharrak eta kexak ezagutu, behar duten guztirako laguntza eskaintzeko. Baita EGKren baliabideak eskaini, sortzen diren lantaldeetan parte hartzea bultzatu; beste elkarteekin harremanetan jarri elkarlana bultzatuz eta EGKn parte hartze aktiboa eragin, elkarte bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta, noski.

Horrekin batera, 2011an habian jarritako EGKren bideratze prozesuak, aurten ere jarraipena izango du. Honen helburua, EGKk egun dituen gabeziak identifikatu, eta helburu, funtzionamendu eta oro har estrukturaren berritzea da. Horretarako, EGKn gaur egun eta historikoki parte hartu izan duten Batzorde teknikoko teknikari, elkarteetako arduradun eta Batzorde iraunkorreko kideak biltzen dira.

## helburuak

**Orokorrak**:

- Elkarteen arteko harremanean sakondu. Barne sarea.

**Zehatzak:**

- EGKrekiko erantzunkidetasuna sustatu.
- Administrazioekiko bitartekari lana burutu.
- EGKren izaera eta funtzionamendua indartu.

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak (URTE OSOAN ZEHAR)

Hilean behin EGKko elkarteekin bildu.
Elkarteak EGK-ren prozesu parte hartzailean inplikatu eta elkarlanak proposatu.
Elkarteen artean sare-harremanak sustatu.

### Kronograma (hilero, opor-aldietan izan ezik).

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- EGK
- EGKren Lan Talde Teknikoa
- 3 Lurraldeetako EGKko Elkarteak
- Beste elkarteak

## ebaluaketa irizpideak

- Urtean bildutako elkarteak.
- EGKko jardueretan parte hartu duten elkarte kopurua.
- Elkarte bakoitzarekin sortutako kontaktuak.
- Sortutako sareak- harremanak elkarteen artean.
- Elkarteengandik jasotako elkarlanerako proposamenak.
- Elkarteei proposatutako elkarlanak.
- EGKren izaera berriaren inguruko hausnarketak.

## 5.3 ADMINISTRAZIOEKIKO BITARTEKARITZA ETA ELKARLANA

### deskribapena

Kontseiluko elkarteekin zein gazte elkartegintza munduarekin lan egiteaz gain, Administrazioekin garatzen den lana EGKren egitekoren nagusienetariko bat izaten jarraitzen du. Zergatik?

Alde batetik, EGK-ren Legeak azterlanak eta txostenak eginez eta bestelako bideez baliatuz, Administrazioari gazteen arazoekin eta interesekin lotura duten neurriak proposatzeko eta iradokizunak egiteko lana izendatzen diolako. Baita, lege honek administrazioari Euskadiko Gazteriaren Kontseilua onartutako solaskide izatea onartzen duelako, gazteriari dagozkion arazoen inguruko aginpideak Sailaren bidez emateko ahalmena aitortuaz (Zioen adierazpena, Maiatzaren 27ko 6/1986 LEGEA).

Kontseiluaren estiloa eragile guztiekin elkarlanean aritzea ere bada. Eta gazteria politiketan, eragile erabakitzaile bat badago, hori Administrazioa da. Administrazioak baliabide ekonomiko handienak dituelako eta gazteria politiken inguruan eragile sortzaile eta bultzatzaile garrantzitsuena delako. Beraz, harreman egonkorra, ona, naturala eta jariokora edozein Administraziorekin izatea ezinbestekotzat jotzen du EGKk: bai herri zein lurralde mailakoak. Azkenean elkarlanaren, lankidetzaren beharra dute bi eragileok. EGKk Administrazioa behar du, eta alderantziz ere, Administrazioek EGK behar du. Behar horietatik abiatuz, elkarlanerako esparruak sortzea eta bultzatzea komeni da. Honek bakarrik ekarri ahal dizkie onurak bi eragileei.

Azkenean helburua oso zehatza da: ahalik eta eragile gehienekin elkarlanean aritzea. Horrela, eragile-sarea zabaltzeaz eta indartzeaz gain, gazteen beharrak eta kexak behar den moduan asetzeko gaitasuna handiagoa izango da.

Horretaz gain, gazte eragile eta administrazioaren artean suertatu daitezkeen gatazkak bideratu eta bitartekari lana egitea dagokio EGKri. Gaztetxeen desalojo arrisku egoeretan edota jendarte mugimendu ezberdinak egiten dituzten aldarrikapenak zuzenean administrazioari helarazi ahal izateko burutzen da lan hau. Kontutan eduki behar da normalean eragile hauek errekurtso gutxi eta ez oso eraginkorrak dituztela.

Azkenik, udalekin dagoen harremana puntuala izaten da, eta batez ere bertako gazte-teknikariekin egoteko, herriko gazteen errealitatea eurekin aztertzeko, elkarlanerako proposamenak zabaltzeko edota EGKren azkeneko berriak zabaltzeko.

**Araban**, urte batzuetatik hona Gasteizko udalarekin harreman formala eta egonkorra dago Gazteria Politikak Aztertzeko Foroak antolatuz eta II. Gazte Planaren Jarraipen Batzordean parte hartuz.

**Gipuzkoan**, Gaztematika (Gipuzkoako haur eta gazteen Sustapenerako sistema) parte hartzen jarraituko da. Honen barruan, Gipuzkoako Elkarteen Foroa osatzeko lanean jardungo da Gipuzkoako koordinatzailea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik. Gaztematikaren barruan Kontsulta Foro bat izango da. Horretaz gain, Donostiako

Udalarekin, Gazteria eta Berdintasuna sailarekin elkarlana sustatzeko lanean jardungo da harreman formala eta egonkorra lortzeko.

**Bizkaian**, BFArekin batera, Gaztedi Bizkaia (beren departamendu zein lurraldeko udalerriekin elkarlanean zeharkakotasuna lantzeko ekinbidea); EGK-BFAren arteko hitzarmenaren jarraipenerako batzorde mistoa; Diru-laguntzen epaimahaia ahotsa (Gazteria sailetik bideratzen diren estruktura eta egintza singularren ingurukoak). Horretaz gain, Bilboko Udaleko partaidetza sailarekin, Urtxintxa Eskolarekin, EDE Fundazioarekin eta Gaztetxo Eskolarekin burutzen den egitasmoa da Gizarte Egutegia. (errekurtso komunikatibo gutxi dauzkaten elkarteen -gizarte gaiak jorratzen dituztenak lehenetsiz- ekintzak argitaratu eta zabaltzeko egutegia). Durangoko udalarekin elkarlanean KULUNKAN egitasmoan parte hartzen da.

Hortaz laburbilduz, 2012ko urte honetan, EGK-k hainbat partaidetza esparrutan jarraituko du:

- Gasteizko udalerako II Gate Planaren Jarraipen Batzordea
- Gazteria Politikak Aztertzeko Gasteizko Foroa
- BFArekin batera garatutako Gaztedi Bizkaia ekinbidea
- GFArekin batera garaturiko Gaztematika ekinbidea
- Bilboko Udalarekin Gizarte egutegia eta Hiritar kontseilua
- Durangoko udalaren bat KULUNKAN proiektuan

## helburuak

**Orokorrak**:

- Hitzarmenak aztertu
- Elkarlanerako espazioak sortu/sustatu
- Lurraldearen ezagutza: Udaletako gazteria zerbitzuekin lana
- Administrazioekiko zubi lana egin

**Zehatzak:**

- Elkarlanerako espazioak sortu/sustatu

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak (URTE OSOAN ZEHAR)

Gaztedi Bizkaia: Bizkaiko Aldundiko departamendu zein lurraldeko udalerriekin elkarlanean zeharkakotasuna lantzeko ekinbidean parte hartu.
Gaztematika: Gipuzkoako Elkarteen Foroa osatzeko lankidetza egin.
Gizarte egutegia: errekurtso komunikatibo gutxi dauzkaten elkarteen -gizarte gaiak jorratzen dituztenak lehenetsiz- ekintzak argitaratu eta zabaltzeko egutegia landu.
Gasteizko Foroa: Gazteria Politikak Aztertzeko 8. eta 9. Foroak Gasteizko udalarekin antolatu.
Gasteizko II.Gazte Planaren hileroko Jarraipen Batzordeko bileretan parte hartu eta Hiriko Kontseiluko bozeramaile lanetan lagundu.

### Kronograma

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Arabako Foru Aldundia
- Eusko Jaurlaritza
- Udalerriak

## ebaluaketa irizpideak

- Urtean burututako bilerak.
- Parte hartutako esparru/jarduera ezberdinetan.
- Sortutako esparru/jarduera berriak.
- Herrietako administrazio berriekin izandako kontaktuak.
- Hitzarmenak egonkortzea lortu den ala ez.

# 5.4 GAZTEEKIN ZUZENEAN EDO ZEHARKA LAN EGITEN DUTEN SAREEKIKO LANA

## deskribapena

Gazteak gizartearen islada diren heinean, aniztasunez batzen dira, horregatik edonon eta edonola topa daitezke: formalki elkartuak, ez elkartuak, ez formalki elkartuak, asanbladetan, gaztetxeetan, kirol elkarteetan, kultur elkarteetan, ezertan. EGK gazte guztiekin saiatzen da harremanetan egoten. Batzuekin errazagoa da, beste batzuekin zailagoa. Hala ere, proiektuak garatzeko eta burutzeko momentuan buruan kontutan hartzen dira beti.

EGKtik kanpoko elkarteetako gazteekin topo egiteko elkarte horiekin harremanetan egotea ezinbestekoa da. Normalean, elkarte bakoitzak bere lanak burutzen ditu, eta normala denez, lehentasunezkotzat jotzen ditu euren jarduerak. Hala ere, sarritan, elkarte eta gizarte eragile ezberdinak plataformetan edota sareetan biltzen dira euren aldarrikapenak bat eginez, indarrak batuz.

Holako topaguneak oso garrantzitsuak dira EGKrentzako, gizarte mugimenduetako errealitatearen termometro moduan erabiltzen baititu: EGKtik kanpo dauden elkarteen egoeraren islada direlako. Hortik, harremanak ateratzeaz aparte, elkarte horien aldaketen eta egoeraren inguruko berriak jasotzen ditu. Eta ateratako kontaktuei esker, beste eragileekin elkarlana eta sare lana bultzatzea posible du EGK-k. Baita euren sare propioak ezagutu eta, amarauna zabaltzea ere.

Beraz, EGKren plan estrategikotik urrun ez badaude, urtean zehar sortuko diren ekimenetan parte hartuko da.

Horrez gain, harreman hauek ez dira plataformetara mugatzen. Beste era askotara burutzen dira harremanen indartze edo sareen indartze hau. Era horretan, elkarteei beste era bateko euskarriak eskaintzen zaizkie hauen ahotsa ozenagoa eta zabalagoa izan dadin. Hor dago Berriz Berria, beraiek antolatzera doazen ekitaldi, jarduera edo bestelako ekintzen berri ematen duena. Edota, sarri taldeen artean, batekin eta besterekin biltzearen ondorioz lortzen den informazioa baliatuz, burutzen den bitartekaritza lana. Edota, plataformetan askotan burutzen den parte hartzea Askotan nabaritzen ez diren lanak izan arren, gauzapen argia ez dutelako, behar beharrezkoak dira azkenean emaitzak onak izaten laguntzeko.

**Bizkaian**, 2011an sortutako KULUNKAN Ikas/jolas Gunea egitasmoan parte hartuko du EGKk. Aisialdi ez-formalean jarduten duten Bizkaiko eragile eta norbanakoak biltzeko sarea da, baloreetan oinarritutako heziketa landu eta ikas-jolas topaketa edo esperientzia pilotu bat martxan jartzeko helburuekin. Gazte elkarteen plataformak berezkoa duen izaeratik (sareak sortu, elkarlana proposatu eta proiektuak eraikitzekoa) jaio zen Kulunkan. Kanpoko eragileekin harremanak landu eta finantzaketa zein eragin esparrua zabaltzeko aukera ematen duelarik. Urte osoko prozesu parte hartzailearen ondotik, 2012ko gabonetan egikarituko da Durangoko herrian.

**Gipuzkoan**, EGKk hiru proiektuetara bideratuko du lana. Elkarteen mahaia sustatzen eta Sareginez elkarteen sarean, lana indartuz.

Donostian, hiriko elkarteen puntu komuna sortzeko hastapeneko pausua da elkarteen mahaia. EGKk laguntza teknikoa eskainiko du. Hau da, elkarteen mahaia osatzen lagunduko du baina sare horretako elkarteek erabaki beharko dute nondik jo. Helburuen artean, elkarteen artean elkarezagutza sustatzea, sinergiak sortzea, eta lana elkarbanatzea daude. Helburuen definizioa, lehen bileran adostu beharko dute elkarteek.

Sareginez, boluntariotzaren inguruan hausnartzeko taldea da. Gizarte zerbitzuak eskaintzen dituzten taldeak dira nagusiki. Sareginez-etik hitzaldiak, tailerrak eta jarduera bereziak antolatzen dira. Beste eragileekin elkartzeko topagunea da.

Era berean, Gipuzkoako Koordinatzaileak Gipuzkoako Astialdi Foroaren koordinazioaren lana hartuko du. Orain arte, hezkuntza teknikariaren esku zeuden lanak Gipuzkoako koordinatzailearen ardura izango dira.

## helburuak

**Orokorrak**:

- Sortzen diren Sare eta ekimenean parte-hartu/ezagutu.
- EGKren erreferentzia sarea zabaldu/indartu.
- Boluntariotza agentziekin hausnarketa komunak burutu.

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak (URTE OSOAN ZEHAR)

Sortzen diren Sare eta ekimenean parte-hartu/ezagutu.
Eragile sozial desberdinak ezagutu.
Topagune berriak, sare berriak sortu.

### Kronograma

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- EAEko gazte elkarteak/sareak
- Lurraldetako boluntariotza agentziak
- Lurraldetako gizarte mugimenduak

## ebaluaketa irizpideak

- Parte hartutako sare edo plataformetan.
- Parte hartutako eragile kopurua.
- Lortutako helburuak, jarduerak.
- Sortutako topagune/ sare berriak.

# 5.5 EGK LURRALDERANTZ

## deskribapena

EGKko lurralde koordinatzaileen lana, herrialdean (Gipuzkoa, Bizkaia, Araba) ematen diren errealitate desberdinen gaineko ezagutza izatea da. Zentzu horretan, EGK osatzen duten teknikariek arloka lan egiten dute eta lurralde koordinatzaileen lana ere bada lurralde historiko bakoitzari ahalik eta hoberen txertatzeko arlokako teknikariekin zuzenean lan egitea.

Horrela, lurralde koordinatzaileek arlokako teknikarien lana probintzia bakoitzean txertatzen saiatuko dira, bakoitzak izan ditzakeen berezitasun eta nabardurak kontutan hartuz.

Beraz, lan koordinatu bat burutzea ezinbestekoa da, arlokako teknikarien lana ahalik eta fruitu handienak jaso ditzan. Lan hau, aurre ikusitako ekintza egiteko lekua topatzetik, parte hartzaileak aukeratzera, edo gonbidapenen zerrenda egira iritsi daiteke, kasuan kasuko laguntza eskainiz.

## helburuak

**Orokorrak**:

- Arlo teknikoak lurralderantz kobertura ematea
- Lan Talde Teknikoarekin batera EGKko barne koordinazioa ahalbidetu
- Egoitzetako kudeaketa lanak burutu
- Urteko plangintza eta memoria egin

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak (urte osoan zehar)

Arlo teknikoarentzat kobertura eman.
Bilera teknikoak.
Koordinazio bilerak.
2012ko Memoria eta 2013ko Plangintza.

### Kronograma (hilero)

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- EAEko udalak
- Lurraldetako Foru Aldundiak

## ebaluaketa irizpideak

- Izandako bilerak
- Burutu dela bermatzea
- Parte hartu edo bideratutako eragileak

# 6. PRESIDENTZIA

## 6.1 BATZORDE IRAUNKORRA

### deskribapena

Batzorde Iraunkorra EGKren baitako erabaki-organoa da. EGKko eskubide osoko kide diren elkarteetako 11 ordezkarik osatzen dute, hurrengo moduan banatuta: presidentea, 2 presidenteorde, diruzaina, idazkaria eta 6 batzordekide. Asanblada Orokorra urtero ospatu arren, Batzorde Iraunkorraren eraketa 2 urtetan behin erabakitzen da. Bere ardura da EGKren gaineko erabakiak hartzea, lan-ildoak ezartzea eta EGKren irudi publikoa landu eta aurrera eramatea.

Batzorde Iraunkorretik aurreko urtetik hartuta dauden erabakiekin aurrera egingo da 2012an zehar eta urte honi dagozkion erabaki berriak hartuko dira.

Honetaz gain, Batzorde Iraunkorra bera gorpuztuko da, lan-dinamika eraginkorra martxan jarriaz, eta organo honen erabakigarritasuna handitzeko lan egingo da. Honetarako Batzorde arduren eta arloen banaketa birdefinituko da bertako kideen artean, arloka beharrean partaide bakoitzari Lan Talde Teknikoko langile bat izendatuko zaio.

Bestalde, Presidenteak zubi lana egingo du Batzorde Iraunkorraren eta Batzorde Teknikoaren artean, baina arazo ekonomikoak direla medio orain arteko Arloetako Koordinatzailearen lanpostua beteko ez denez, zubi lan hau egiteko mekanismo berriak erabiliko dira. Batzorde Iraunkorraren bileretara Lurralde Koordinatzaileak azalduko dira, bilera bakoitzera bat. Hala, EGKren lana modu zuzenagoan ezagutzera emango da Batzorde Iraunkorrean eta erabakiak hartzeko era erraztuko da. Honetaz gain, bi hilabetean behin Batzorde Iraunkorra eta Lan Talde Tekniko osoa elkartuko dira baita ere, asmo honi laguntzeko.

### helburuak

**Orokorrak**:

- EGKri dagozkion gaien inguruan erabaki.
- EGKren kide diren taldeekiko komunikazioa landu.
- EGKren irudi publikoa landu

**Zehatzak:**

- Batzorde Iraunkorra gorpuztu, taldetasuna landu.
- Batzorde Iraunkorraren erabakigarritasuna handitu.
- Egindako ardura banaketak abian jarri.

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak (urte osoan zehar)

Batzorde Iraunkorraren bilerak
Lan Talde Teknikoarekin bilerak
Irudi publikoa

### Kronograma (hilero)




## hartzaileak

- Batzorde Iraunkorreko kideak.
- Batzorde Teknikoa.
- EGKko lan-talde eta elkarteak.
- Komunikabideak eta gizartea.

## ebaluaketa irizpideak

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Erabakien gauzatzea.
- Gizarte-oihartzuna.
- Elkarteen erantzuna.

# 6.2 LAN TALDE TEKNIKOA

## deskribapena

Batzorde Teknikoa EGKko teknikariek osatzen dute, bakoitzak bere arloan egunero lan egiten duelarik. Gaur egun 9 langilek osatzen dute, 3 hiriburuetako bulegoetan banatuta daudelarik. Gasteizen Arabako Koordinatzaileak, Komunikazio teknikariak eta Bizi Baldintza Materialen teknikariak egiten dute lan; Bilbon idazkariak, Bizkaiako Koordinatzaileak eta Hezkuntza teknikariak egiten dute lan; eta Donostian Gipuzkoako Koordinatzaileak, Presidenteak eta Justizia eta Berdintasun Baldintzetako teknikariak.

Presidentziaren aldetik lan-taldearen kohesioa eta koordinazioa bermatuko dira eta zubi lana egingo da Batzorde Iraunkorraren eta Batzorde Teknikoaren artean, aurrenekoan hartutako erabakiak bigarrengora trasladatu eta bigarrenaren lana aurrenekoari transmititu ahal izateko. Hala bi Batzordeen dinamikak uztartuko dira. Honetarako gainera, 6.1 atalean azaldutako mekanismoak jarriko dira martxan.

## helburuak

**Orokorrak**:

- Lan-taldearen kohesioa eta koordinazioa bermatu.
- Zubi lana egin Batzorde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren artean.

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak (urte osoan zehar)

Lan Talde Teknikoaren bilerak
Batzorde Iraunkorrarekin bilerak
Egunerokotasuna

### Kronograma (hilero)

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- Batzorde Teknikoko kideak.
- Batzorde Iraunkorra.

## ebaluaketa irizpideak

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Erabakien gauzatzea.
- Teknikarien arteko koordinazioa.
- Batzorde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren arteko informazio trukaketa.

# 6.3 BATZORDE EKONOMIKOA

## deskribapena

Batzorde Ekonomikoak EGKren aurrekontua, gastuak eta diru-sarrerak kontrolatu eta kudeatzen ditu. Batzorde Ekonomikoa EGKko idazkariak (administrari-lana burutzen baitu), diruzainak eta presidenteak osatzen dute. Hitzarmenen bidez lortutako diru-laguntzak, elkarteen kuotak eta bestelako diru-sarrerak kudeatzen dituzte eta unean-uneko gastuak eta egoera ekonomikoa zaintzen dituzte.

Batzorde honetan 2012ko aurrekontuaren kudeaketa egingo da, eta Batzorde Iraunkorreko kideekin adostuta, administrazioarekin hitzarmenak negoziatuko dira. Honetaz gain, beharrezkoak izango diren gastuak baloratu eta onartuko dira.

Gainera, hurrengo urteari begirako hitzarmenak prestatuko dira eta aurrekontuaren aurrikuspena egingo da.

## helburuak

**Orokorrak**:

- EGKren alor ekonomikoaren jarraipena egin.
- Alor honetan unean-uneko erabakiak hartu.

**Zehatzak:**

- 2012ko aurrekontua prestatu.
- Administrazioarekin hitzarmenak negoziatu.
- 2013ko aurrekontua aurrikusi.

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak (urte osoan zehar)

Batzorde Ekonomikoaren bilerak
Aldundiekin bilerak
Jaurlaritzarekin bilerak

### Kronograma (hilero)



## hartzaileak

- Aldundiak.
- Jaurlaritza.
- Batzorde Iraunkorra.
- Batzorde Teknikoa.

## ebaluaketa irizpideak

- Egoera ekonomikoa.
- Diru-sarrera eta gastuen arteko oreka.
- Hurrengo urterako aurrikuspena.

# 6.4 OHIKO ASANBLADA

## deskribapena

EGKren Ohiko Asanblada urtero ospatzen da. Bertan EGKko kide diren elkarteei aurreko urteko memoria aurkezten zaie eta urte horretarako plangintza, onartu edota atzera bota daitezen. Gainera, kide berrien sarrera bozkatzen da eta EGKri dagozkion erabaki garrantzitsuenak adosten dira.

Bi urtetan behin Batzorde Iraunkorraren eraketa erabakitzen da Ohiko Asanbladan, baina ez da aurtengo kasua, iazkoan hautatu baitziren kideak.

## helburuak

**Orokorrak**:

- 2011n egindako lana elkarteei aurkeztu.
- 2012rako planifikatutakoa elkarteei aurkeztu.

**Zehatzak:**

- Asanbladarako beharrezko dokumentazioa prestatu.
- Aldez aurretik elkarteen proposamenak jaso eta aurkeztu.
- Aldez aurretik kidetze eskaerak bildu, baloratu eta aurkeztu.

## ekintzak eta epeak

**Ekintzak (urte osoan zehar)**

Memoria eta plangintzaren prestaketa
Elkarteen proposamenak jaso eta aurkeztu
Kidetze eskaerak jaso eta aurkeztu

**Kronograma (hilero)**

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- EGKko kide diren elkarteak.
- Batzorde Iraunkorra.

## ebaluaketa irizpideak

- Asanbladaren eraginkortasuna.
- Elkarteen iritzia.

# 6.5 INSTITUZIOEKIKO ELKARLANA: Jaurlaritza

## deskribapena

Bere izaera juridikoa, finantziazio-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Jaurlaritzarekin, alde batetik, EAE mailako elkarlanerako guneak konpartitzen ditu. Eta beste aldetik, EGKren finantziazio-bide nagusia den aurrekontu-partida instituzio honen eskutik dator.

Hala, aurtengoan EGKri bideratutako aurrekontua handitzeko lanak egingo dira Jaurlaritzari begira. Honetaz gain, Gazteen Euskal Lege berriaren proposamenarekin eta III. Gazte Planarekin lanean jarraituko da orain arte egindako moduan.

Bestalde, EGKren lana balioan jartzeko ahalegina egingo da instituzio honi begira.

## helburuak

**Orokorrak**:
- EGKren finantziazio bidea ziurtatzeko informazio trukaketa eta negoziazioa bermatu.
- Elkarlanerako guneak identifikatu.

**Zehatzak:**
- EGKren aurrekontua handitzeko lana egin.
- Gazteen Euskal Lege berriarekin eta III. Gazte Planarekin lanean jarraitu.

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak (urte osoan zehar)

Aurrekontuaren inguruko lanketa
EGKren lana balioan jartzea
Gazteen Euskal Legea eta III. Gazte Plana

### Kronograma (hilero)

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- Jaurlaritza.
- EGK.

## ebaluaketa irizpideak

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Aurrekontuan eragina.
- Gazteen Euskal Legean eragina.
- Lankidetza gune berrien sorrera.

# 6.6 INSTITUZIOEKIKO ELKARLANA: Aldundiak

## deskribapena

Bere izaera juridikoa, finantziazio-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Aldundiekin lurralde bakoitzeko elkartegintzaren errealitatearen lanketa egiteaz gain, bakoitzarekin lan-hitzarmenak sinatzen dira.

## helburuak

**Orokorrak**:

- Elkarlanerako guneak identifikatu (Gaztematika, GazteBizz, elkartegintzaren errealitatea...).
- Hitzarmenak adostu.

**Zehatzak:**

- Hitzarmenetako aurrekontuak handitzeko lana egin.

## ekintzak eta epeak

**Ekintzak (urte osoan zehar)**

Aurrekontuaren inguruko lanketa
Elkarlanerako guneen identifikazioa

**Kronograma (hilero)**




## hartzaileak

- Foru Aldundiak
- EGK.

## ebaluaketa irizpideak

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Aurrekontuan eragina.
- Lankidetza gune berrien sorrera.
- Lankidetzaren eraginkortasuna.

# 6.7 INSTITUZIOEKIKO ELKARLANA: Legebiltzarra

## deskribapena

Bere jardueren eta asmoen berri emateko, eta jasotako dirulaguntzak justifikatzeko, EGKk agerraldiak egiten ditu Legebiltzarrean, dagokion Batzordearekin bilduaz. Urtean behin gutxienez ohiko agerraldia egiten du ordurarte egindako lana plazaratu eta hortik aurrerako asmoak azaltzeko.

Bestalde, legebiltzarkideek EGKren agerraldiak eskatuz gero gai zehatzen inguruan erantzuna emateko, bertaratu eta hala egingo da.

## helburuak

**Orokorrak**:

- Legebiltzarkideei EGKren jardueraren berri eman.

**Zehatzak:**

- Ohiko agerraldian memoria eta plangintza aurkeztu.
- Legebiltzarkideen agerpen-eskaera eta galderei erantzuna eman.

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak (urte osoan zehar)

Ohiko agerraldia

Agerraldi eskaerei erantzuna eman

### Kronograma (hilero)

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- Legebiltzarra.

## ebaluaketa irizpideak

- Agerraldien maiztasuna.
- Agerraldien kalitatea eta eragina.

# 6.8 ERAKUNDE GARAPENA

## deskribapena

EGKren barne egituraren, izaera juridikoaren eta legearen inguruko hausnarketa prozesua abiatuko da, Kontseilua eguneratu, hobetu eta lan-dinamika eraginkorragoa sortzeko asmotan, egoera legal eta juridikoaren gaineko erabaki bat hartzeko asmoaz gain.

Honetarako INDARTU programa berdefinituko da eta kanpo-eragile baten laguntzarekin abiatuko da hausnarketa prozesu osoa, Gazteek-In programaren barnean.

## helburuak

**Orokorrak**:

- EGKren funtzionamenduaren eta egoeraren inguruko hausnarketa egin INDARTU eta Gazteek-In programen laguntzaz.

**Zehatzak:**

- Hemendik aurrerako Kontseilu eredua definitu.
- Kontseiluaren papera zehaztu.
- EGKren gaur egungo gabezia eta akatsak konpondu.

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak (urte osoan zehar)

EGKren diagnosi eta birdefinizioan parte hartu eta koordinatu

### Kronograma (hilero)

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- EGKko Batzorde Iraunkorra.
- EGKko Batzorde Teknikoa.
- EGKko elkarteak.
- EGKtik kanpoko gazte eragileak
- Erakunde publikoak

## ebaluaketa irizpideak

- Kontseiluaren akats eta gabeziei aurre egitea.
- Etorkizuneko Kontseilu eredua finkatzea.

# 6.9 IRUDI PUBLIKOA

## deskribapena

EGKk izaera publikoa eta ordezkari-izaera ditu eta lantzen dituen gaiak gaurkotasunekoak eta zenbait sektoreren interesekoak dira. Hau dela eta, Kontseiluak hainbat agerraldi publiko egiten ditu, batzuk EGKk berak deituta, beste batzuk medioek edo bestelako eragileek deituta.

Hala, 2012an zehar ere komunikabideetan, elkarrizketa eta prentsaurrekoetan, aurkezpenetan eta hitzaldietan parte hartuko da, EGKren hitza eta iritzia gizarteari helarazteko.

## helburuak

**Orokorrak**:
- EGK publikoki ordezkatu.
- EGKren hitza eta iritzia gizarteari helarazi.

**Zehatzak:**
- Elkarrizketetan eta aurkezpen publikoetan EGK ordezkatu.
- EGKren publikazioetarako zein komunikabide idatzietarako iritzi-artikuluak, prentsa oharrak eta editorialak idatzi.

## ekintzak eta epeak

### Ekintzak (urte osoan zehar)

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

### Kronograma (hilero)

| URT | OTS | MAR | APIR | MAI | EKA | UZT | ABU | IRA | URR | AZA | ABE |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | |

## hartzaileak

- Komunikabideak
- Gizartea.

## ebaluaketa irizpideak

- Agerpenen maiztasuna eta agerpenen eragina.
- Komunikabideen erantzuna.
- Zabalketa maila.

# 7. EGK-ko 2012rako AURREKONTUA

## 7. 1 EGK-KO 2012RAKO AURREKONTUAREN INGURUKO AZALPENAK

Hasteko, aipatu beharra dago bere onesperako jarraian aurkezten dugun aurrekontua 2012rako plangintzan oinarrituta dagoela.

## DIRUSARRERAK:

- **EUSKO JAURLARITZA:**

Sarrerei dagokionean aipatu, aurten berriro **Eusko Jaurlaritzako Gazteria Sailak dirulaguntza nominatiboari** dagokion kopurua %34,60tan (-91.784€) murriztu digu 173.500,00 € izanik eta ekipamentuei zuzendutakoa, **inbertsioei** dagokiona, 6.000 €tan mantendu dituela.

**- ALDUNDIAK:**

Gaur egun, **Bizkaiko Foru Aldundiarekin** urte honetarako hitzarmen bat sinatzeko harremanetan gaude. Honen zenbatekoa 42.000 € izango da.

Bestealdetik, **Gipuzkoako Foru Aldundiarekin** urte honetarako hitzarmen bat sinatzeko gaude, Aurreikusita 25.553,00 € izango dira.

Halaber, **Arabako Foru Gazteriarekin** harremanetan gaude beste 2012rako hitzarmen bat sinatzeko. Aurrekeikusita gehienez 6.000,00 € izango da

Bere finantziaziorako Juventud en Acción programari GAZTEEK-IN proiektua aurkeztu diogu. (EGK-k 2012ko maiatzatik abendura arte aurrera eramango duen ekimen bat da. Honetan gazte osoko ikuspuntu batetik jendarteko politiken garapenean, inplementazioan eta ebaluazioan gazteriaren partaidetza ahoskatu eta bermatu nahi dugu). Momentuz erantzunik ez daukagunez, zuhurtasunagatik ez dugu aurrekontuan sartu.

- **BEREZKO DIRUSARRERAK:**

**Kontseilukide diren elkarteen kuote**i dagokion diru partidaren inguruan, aipatu beharra dago aurreikusitako kopurua gutxi gora beherakoa dela, ez baitago jakiterik zenbat elkartek ordainduko duten eta zenbatek ez.

**Finantzaketa interesei** dagokion atala, aurreikusitako kopurua gutxi gora beherakoa da, hori dirulaguntza jasotzen den epearen araberakoa izango delako. Gauzak horrela, gerta liteke momenturen batean EGK diru likidaziorik gabe geratzea.

**Ikastaro, foro...** bitartez jasotzen diren diru-sarrerei dagokionean, aipatu beharra dago kopuru horiek dieta moduan ordaintzen zaizkiola EGK-ri erakunde ezberdinik antolatutako zenbait Foroetan eta programetan parte hartzeagatik.

## GASTUAK:

Izandako murrizketak direla eta, gastu guztiak egokitu behar izan ditugu.

**Egiturazko eta kudeaketa gastue**i dagokionean, aurreko urtearekin konparatuz honetan %5 murrizketa bat egongo dela aipatu beharra dago.

**Langilegoaren gastuei** dagozkionean, atal honetan murrizketa handienak egin behar ditugula aipatu behar da. Hori dela eta, aurten ere arlo teknikoen arduraduna ez dugu izango eta lanaldi gehienak murriztu behar izan ditugu, horrela izanik: Administrazioa (lanaldi osoa), Presidentzia, Bizkaiko Koordinazioa, Gipuzkoako Koordinazioa, Bizi Baldintzak arloko Teknikaria, Hezkuntza arloko Teknikaria eta Komunikazio arloko Teknikaria ¾ lanaldia eta Arabako koordinazioa eta Kulturartekotasuna eta genero arloko Teknikaria ½. Halaber aurten soldatetan igoerarik ez da izango.

**Jarduerei eta proiektuei** dagozkion diru irteerez, gastu hauek berregituratu eta banandu egin direla 2012rako Lan Plangintza kontuan izanik. Aipatu behar atal honetan mozketa gutxieena egin dugula

Aurten berriro Eusko Jaurlaritzako Gazteria Sailak dirulaguntza ohiko jarduerak finantziatzeko dirulaguntza izendunari dagokion kopurua (-91.784 €) murrizketaren dela eta, 2012rako plangintza aurrera eramateko gastuen egokitze handi bat egin eta gero, 32.636,10 €tan defizita izango genuke. Honek aurreko urteetatik soberakin positiboetatik datorren EGK-ko ornidura- funtsarekin betetzen dena.

## 7. 2 EGK-KO 2012RAKO AURREKONTUA

# EGKko 2012rako AURREKONTUA

| SARRERAK | | |
|---|---|---|
| **EUSKO JAURLARITZA** | | **179.500,00 €** |
| Eusko Jaurlaritza. Zuzenekoa | 173.500,00 € | |
| Eusko Jaurlaritza. Zuzenekoa. Inbertsioak | 6.000,00 € | |
| **ALDUNDIAK** | | **73.553,00€** |
| Bizkaiko Foru Aldundia. Gazteria | 42.000,00 € | |
| Gipuzkoako Foru Aldundia Gazteria | 25.553,00 € | |
| Arabako Foru Aldundia. Gazteria | 6.000,00 € | |
| **INGRESOS PROPIOS** | | **42.136,10 €** |
| Finantziar Ondasunak | 500,00 € | |
| Foroetan, kurtsoetan, partehartzeagatik dirusarrerak | 1.000,00 € | |
| 2012 urteko kontseilukideen kuotak | 5.000,00 € | |
| Eusko Jaurlaritza. (Gazte Txartelako publizitarea) | 3.000,00 € | |
| Aurreko urteetako soberakina | 32.636,10 € | |
| **GUZTIRA** | | **295.189,10 €** |

| GASTUAK | |
|---|---|
| **1.- OROKORRAK** | **109.313,71 €** |
| ***1.1. LANGILE OROKORRAK*** | ***79.428,71 €*** |
| **Koordinazio Nagusia (Presidentzia) (3/4 lanaldia)** | *26.686,01 €* |
| *20.049,60 € Soldata gordina* | |
| *6.636,41 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza* | |
| **Administraritza (lanaldi osoa)** | *44.150,61 €* |
| *33.728,40 € Soldata gordina* | |
| *10.422,21 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza* | |
| **Garbiketa Zerbitzua** | *8.592,09 €* |
| Bizkaia | 4.744,29 € |
| *3.545,85 € Soldata gordina* | |
| *1.198,44 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza* | |
| Gipuzkoa | 2.653,44 € |
| Araba | 1.194,36 € |
| ***1.2. EGITURA ETA KUDEAKETA*** | ***29.885,00 €*** |
| Kopiagintzak | 1.060,00 € |
| Bidalketak | 50,00 € |
| Bulego materiala eta informatika | 500,00 € |
| Telefonoa, faxa eta interneta | 5.000,00 € |
| Konponketak eta mantenua | 4.800,00 € |

| | |
|---|---|
| Horniketak | 4.750,00 € |
| Gestoritza | 2.600,00 € |
| Bestelakorik | 200,00 € |
| Langileen osasunaren zainketa | 1.000,00 € |
| Inbertzioak | 6.000,00 € |
| Batzorde Iraunkorra | 1.800,00 € |
| Batzorde Teknikoa eta barne koordinazioa | 1.350,00 € |
| Harpidetzak | 175,00 € |
| Entitate batzuetan parte hartzeko kuotak | 400,00 € |
| EGK-ko batzarrak | 200,00 € |
| **2. LAN ARLOAK ETA PROIEKTUAK** | ***185.875,39 €*** |
| ***2.1 LURRALDEETAKO KOORDINAZIOA*** | ***69.488,84 €*** |
| **Gipuzkoako koordinazioa (3/4 lanaldia)** | *24.940,32 €* |
| *18,738,00 € Soldata gordina* | |
| *6.202,32 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza* | |
| **Arabako Koordinazioa ( 1/2 lanaldia)** | *17.458,20 €* |
| *13.116,60 € Soldata gordina* | |
| *4.341,60 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza* | |
| **Bizkaiko koordinazioa (3/4 lanaldia)** | *24.940,32 €* |
| *18.738,00 € Soldata gordina* | |
| *6.202,32 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza* | |
| **Proiektuak** | *2.150,00 €* |
| ***2.2. KOMUNIKAZIOA*** | **46.187,30 €** |
| **Komunikazio teknikaria (3/4 lanaldia)** | *26.187,30 €* |
| *19.674,90 € Soldata gordina* | |
| *6.512,40 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza* | |
| **Proiektuak** | 20.000,00 € |
| ***2.3. JUSTIZIA ETA BERDINTASUN BALDINTZAK*** | **17.626,84 €** |
| **Justizia eta Berdintasunerako teknikaria ( 1/2 lanaldia)** | *16.626,84 €* |
| *12.492,00 € Soldata gordina* | |
| *4.134,84 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza* | |
| **Proiektuak** | *1.000,00 €* |
| ***2.4. BIZI BALDINTZA MATERIALAK*** | ***27.040,32 €*** |
| **Bizi Baldintza materialetarako teknikaria (3/4 lanaldia)** | *24.940,32 €* |
| *18738,00 € Soldata gordina* | |
| *6.202,32 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza* | |
| **Proiektuak** | *2.100,00 €* |
| ***2.5. HEZKUNTZA*** | ***25.532,09 €*** |
| **Hezkuntzarako teknikaria (3/4 lanaldia)** | *21.407,09 €* |
| *16.083,45 € Soldata gordina* | |
| *5.323,64 € EGK-k ordaindutako Gizarte Segurantza* | |
| **Proiektuak** | *4.125,00 €* |
| **GUZTIRA** | **295.189,10 €** |


EUSKO JAURLARITZAK EMANDAKO GASTU ARRUNTAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZA IZENDUA
350.000,00 €
300.000,00 €
250.000,00 €
200.000,00 €
150.000,00 €
100.000,00 €
50.000,00 €
0,00 €
321.600,00 €
321.600,00 €
331.248,00 €
294.000,00 €
265.284,00 €
173.500,00 €
2007
2008
2009
2010
2011
2012


AFA HITZARMENA
7.000,00 €
6.000,00 €
5.000,00 €
4.000,00 €
3.000,00 €
2.000,00 €
1.000,00 €
0,00 €
0 €
0 €
6.000 €
4.300,00 €
6.000,00 €
6.000,00 €
1
2007
2008
2009
2010
2011
2012


BFA HITZARMENA
80.000,00 €
60.000,00 €
40.000,00 €
20.000,00 €
0,00 €
53.292 €
60.000 €
42.000 €
42.000 €
42.000 €
42.000,00 €
2007
2008
2009
2010
2011
2012


GFA HITZARMENA
35.000,00 €
30.000,00 €
25.000,00 €
20.000,00 €
15.000,00 €
10.000,00 €
5.000,00 €
0,00 €
21.571,75 €
22.306,17 €
28.790,65 €
27.262,32 €
28.134,28 €
25.553,00 €
2007
2008
2009
2010
2011
2012




www.egk.org
Autonomia, 44. 48010 - Bilbao / Tfno.: 94 443 61 43 / Fax: 94 444 61 71 / bilbao@egk.org
Andia, 11 Ppal. 20004 - Donostia / Tfno.: 943 42 97 67 / Fax: 943 42 98 37 / donosti@egk.org
Ramiro de Maeztu, 15 bajo. 01008 - Gasteiz / Tfno.: 945 22 06 01 / Fax: 945 22 06 01 / gasteiz@egk.org